



Gazteak plazara

Sakanako Aizkora Eskolatik sortutako aizkolari belaunaldi berriak txapelketetara egin du salto / 16-17

Lakuntzako liburutegiak egoitza berriko ateak udazkenean zabalduko ditu / 7

Lizarragako Kontzejuak bi etxebizitzaren lanei azken bultzada emanen die / 9

Euskarazko ereduak azken hiru ikasturtetan matrikularen 2,3 puntu galdu ditu / 11

Arrietak eta Mintegik kategoria berrietan debutatu dute, eta Izagirrek talde berrian / 18

Cristina Fernandez ilustratzaileak, besteak beste, liburuen azalak sortzen ditu / 23

SINADURAK



AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZI / 4



OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU / 4



OIHANE AGIRRE ULAIA / 22

Sakanaoptika
optometria • audiolometrija
kontakoptika

Neguko BEHERAPENAK

ESKAITZA BEREZIAK

San Juan kalea 40 (Aitzasu)
948 563 124 | WWW.OPTIKASAKANA.COM

"Pertsona hobea izateko aukera bat izan da"

SOL CRIADO ORTEGA KOOPERANTEA

Ekuadorko kostaldeko Cojimies eskualdean kooperazio proiektu batean parte hartu du bost hilabetez. Hangoaren eta bere esperientziaren berri eman du

Alfredo Alvaro Igoa ARAKIL

Gurasoen bidez jaso zuen Arakilo Udalak gazteei zuzendutako kooperaziorako bekaren berri. Sorpresa izan zen berarendako deialdia bera, eta hautatua izatea ere. Ekuadorko esperientziaren berri Errotzen eman zuen ilbeltzaren 11n. Lanean egon den proiektuaren jarraipena "arriskuan" dagoela gaztigatu du, giza eta diru baliabideak behar dituzte han.

Zergatik aurkeztu zenuen eskabidea?

Nazioarteko kooperazio masterra ikasten ari nintzen 2023an Bilboko Hegoa institutuan. Gizarte Hezkuntza ikasi nuen eta Gurutze Gorrian lanean nengoan. Pertsonalki eta profesionalki komunitate garapenean eta garapenean lankidetzan egon naiz beti lanean. Bekaren berri izan nuenean gogo berri bat piztu zitzaidan. Sorpresaz, beka jaso nuen. Plan guztiak egokitu behar izan nituen, ikasten eta lanean nengoelako.

Masterreko praktika gisa Ekuadorrer joan zinen?

Bai, atzerrian eta gobernuz kanpoko erakunde (GKE) batekin praktikak egin behar dira. Ekuadorren Caritas eta Santa Marta fundazioarekin egon nintzen lanean. Hasiera batean hilabete baterako joan behar nintzen, baina bertako errealitatea ezagututa, bost hilabetez luzatu nuen egonaldia, agorrietik abendura.

Bazenekien erakunde horiekin ariko zinela?

Bai. Nire osaba, Iñaki Rey, Nafarroako Caritaseko langilea izan da urtetan. Ekuadorren luze egon da lanean. Bera han zela, parroikia txiki batean Caritas Cojimies

proiektua sortu eta abiarazi zuten 2016an, lurrikara baten ondorioz; burua izan da. Proiektua Ekuadorko kostaldearen erdialdean dagoen Manabi probintziako Pedernales udalerriko Cojimies herriraino eta izen bereko eskualdean dago. Bertako biztanleek bizibide bakarra artisau arrantza izan dute mendetan. Bertako ekosistema oso berezia da: mangladiak. Naturan pisu handia du, galtzeko arriskuan dauden animalia espezieen bizilekua da. Oso garrantzitsua da biztanleriaren biziraupenerako. Baina izkirak ekoizten dituzten enpresa asko ustiatzen eta kutsatzen ari dira azken hamarkadetan. Izkira hazkuntzarako igerilekuz beteta dago dena. Ondorioz mangladiak desagertzen ari dira, eta biztanle asko miserian murgiltzen ari dira. Osabak proiektuaren berri eman zigun. Herritarren bizi kalitatea hobetzeko, komunitateekin hainbat proiektu egiten ari dira. Horiek ezagutzeko nire harri kokorra jartzeko gogo piztu zitzaidan. Ketty Vidal hasieratik dabil komunitateekin lanean eta proiektuko teknikaria da gaur egun. Esan zuenez, "boluntario eta baliabide gehiago behar ditugu, egiteko asko dago eta ezin dugu ezer egin". Horrek bulkatu ninduen udalaren beka deialdira aurkeztera.

Proiektuaren sustatzaileen inguruan zer kontu dezakezu?

Caritas eliza katolikoaren kariatzezko gizarte ekintza erakundearen konfederazioa da. Santa Marta fundazioa, berriz, Manabi bertako erakunde bat da; oinarrri eta egitura komunitarioko

landa eremuko emakumezkoen elkarteak da. 35 urte daramatza gizarteratze edo duintasun prozesuak garatzen, emakumezko antolatuen eskutik. Bi erakundeek Manabi probintziako 22 udaletan lan egiten dute. 135 bat landa komunitatetan antolatuta daude; 9.000 emakumezko baino gehiago daude antolatuta erakunde horren sarean. Dena boluntarioki egiten da. Fundazioa eta Caritas 2001ean hasi ziren elkarlanean.

Lurrikara aipatu duzu.

7,8 graduko lurrikarak ehunka hildako eragin, etxebizitzak erabat suntsitu eta zerbitzu, azpiegitura eta baliabide askori eragin zien. Kaltetutako familiak laguntzeko Caritas Ekuadorrek eta Santa Marta fundazioak larrialdiei erantzun integrala emateko plana egin zuten, egiaztatu zutelako estatuak hango biztanleria oso utzia zuela. Beste GKE asko ere agertu ziren, baina lurrikarak albiste izateari utzi zionean handik desagertu ziren.

Zertan datza proiektua?

Giza garapen integralaren eta solidarioaren ikuspegitik, komunitate prozesu bat hasi da martxan. Bizi baldintza duinak berreskuratzean datza proiektua. Eskubideen arreta, babesak eta garapenerako guneak indartzea dute helburu. Ni Cojimiesen nengoan lanean, baita hurbil dauden 22 landa eta arrantza komunitateetako, herriraino oso txikiak diren familiekin ere. Arlo, sektore eta problematika asko daude, eta proiektu asko sortu behar izan dira, eta beharko lirake. Izan ere, pobrezia eta desberdintasun handiko eskual-

dea da, eta bertan arazo asko izaten ari dira. Alde batetik, pertsonak beraien mantenua galtzen ari dira. Beraien bizimodu arrantzan oinarritu da betidanik. 80 hamarkada aldera hasi zen izkiraren ustiapena eta Ekuador, uste dut, munduko bigarren esportatzailea da. Bitartean izkiren hazkunderako produktu kimikoengatik arrantza asko txikitu da. Negozio horrekin gutxi batzuk asko aberasten dira, baina biztanle asko pobretzen ditu.

Beste arazorik badute?

Azpiegitura eta oinarritzko zerbitzu falta orokorra da. Gainera, osasun etxeen premia nabaria da, sendagaiak eskuratzeko ezintasuna. Lurrikararen ondoren jende askok etxeak ahal zutenarekin berreraiki dituzte. Kalitatezko hezkuntza zentroen falta dago. Analfabetismoa ohikoa da helduen, eta gazte askoren artean berritua. Ekuadorren azken urteetan desagertua zen haurren lana berritua bueltatzen ari da,



"GAUR EGUN, NAZIOARTEAN, KOOPERANTE FIGURA FUNTSEZKOA DA" SOL CRIADO ORTEGA

"IZKIRAK EKOIZTEN DITUZTEN ENPRESA ASKO USTIATZEN ETA KUTSATZEN ARI DIRA MANGLADIA"

"9.000 EMAKUMEZKO BAINO GEHIAGO DAUDE ANTOLATUTA ERAKUNDE HORREN SAREAN"

bizi duten krisiagatik. Adin txikiarekin eskola uztea oso ohikoa da, arrantzale familietan oso gazte direnetik arrantzan aritzen direlako. Cojimiesen asfaltatutako errepide bakar bat besterik ez dago, Pedernalesera joateko. Han osasun zentroa eta eskolak daude, merkataritza zentroa da. Gainontzeko errepideak lurrezko bideak dira. Cojimiesen biztanleriaren %65 gutxi gorabehera muturreko pobrezian bizi da. Eta egoera ez da hobetzen ari, gobernu honekin eta aurrekoarekin gero eta okerragoa da.

Zertan aritu zinen?

Caritas momentu honetan pobrezia gehien pairatzen duten taldeekin lanean ari da, zehazki, emakumezkoekin eta adinekoeekin. Emakumezkoek askoz gehiago pairatzen dituzte aukera falta eta pobrezia. Emakumezkoen kontrako indarkeria justifikatzen edo naturalizatzen dituzten estereotipoak oso zabalduta daude. Komunitateetan, gehienbat, indarkeria handia jasaten dute emakumezkoek. Indarkeriatik babesteko ez dute inolako laguntzarik ez komunitatean bertan ezta erakundeetan aldetik ere. Lan egiten den beste talde bat adinekoak dira, haien egoera dramatikoak da: utzikeria eta pobrezia oso maila altua dago. Askok jatekorik ez dute, osasun arazo larriak dituzte, ez dute botikak eskuratzeko aukerarik, ezta inolako mediku arretarik ere. Bakardade handia pairatzen dute. Ekuadorren ez dago pentsiorik, eta estatuak erabat babesik gabe uzten ditu. Gauza bera gertatzen da gaitasun anitzak dituzten pertsonekin, edo edozein arazo edo baldintza oso txarrean duen pertsonekin.

Berez, bi proiektu horietan aritu zinen?

Aurrera eramaten diren jarduerak guztietan parte hartu dut. Han ez dago gelditzerik. Elkarrekin bake kultura metodologiaren bitartez lan egiten dute. Erdigunean dute indarkeriaren kultura eraldatzea. Baita generoan oinarritutako indarkeriaren prebentzioa eta horri erantzuteko guneak indartzea. Erresistentzia kultura hori eraikitzeke komunitatean elkarri laguntzeko sareak sortzen dira. Lan egiten den komunitateetan emakumezko antolatuen taldeak sortzen dira. Emakumezkoak diot haiek baitira normalean parte hartzen duten bakarrak, berez, mistoak dira. Azkenean,

emakumezkoak dira zaintzaren eta sostenguaren zentroa. Gizonetako askok arrantzan lan egiten dute, beti daude itsasoan. Emakumezkoak etxean daude gainontzeko guztia funtzionatzen duela bermatzen. Haietara gehien pairatzen dutenak. Horregatik, egoeraren aldaketaren zentroa dira proiektuetan.

Nola lan egin zenuen?

Komunitate bakoitzean hainbat jarduerak egiten dira, emakumezkoek dituzten trebetasunak indartzeko eta asoziazionismoa edo elkartasun erresilientzia hori sustatzeko.

Zein proiektu garatu zenuen?

Komunitate osasuna sustatzea izan zen nire proiektuaren lehentasuna. Osasun erronkei aurre egiteko, komunitateko emakumezkoak komunitate osasunaren sustatzaile gisa trebatzea zen helburua. Lehentasunetako bat da. Hain bizi baldintza txarrak dituztenez, beraien osasuna autogestionatzeko abileziak garatzea da ideia. Eskualdean sendabelleren inguruko antzinako ezagutza zabala dute, eta hori berreskuratu eta haiei balioa eman zaie. Haietan botika naturalak, higie, autozaintza eta kosmetika naturaleko produktuak egiten ikasi genuen. Autoestimua, komunitatezaintza eta ingurumen zaintza indartzeko tailerrak ere egin genituen. Baita garapen sozioekonomikorako tailerrak ere; emakumezkoen artean enplegua eta gaitasun profesionalak sustatzekoak barne. Emakumezkoak beraien kabuz antolatze aurrerki eta kreditu kutxa komunitarioak ere sortu dira. Haien bidez, beraien negozio plan txikiak aurrera egiteko laguntza eta babesa eskaintzen zaie. Emakumezkoen ekonomia autonomia hobetzeko trebetasun profesionalak sustatu genituen, esaterako: azokak antolatuz, emakumezkoekin komunitatez komunitate mugituz, beraien produktuak eta markak sortzen laguntzen, salmentan laguntzen...

Besterik egin zenuen?
Cojimiesen Haurraren Etxea espazioa dago, eta komunitate garapenerako espazio bat eraikitzen ari dira. Nafarroako Emausko Trapuketariei esker bertan liburutegia sortu da, behar handia dago. Bake kultura sustatzeko, espazio horretan helduendako eta haurrendako hezkuntzako jarduerak egiten dira. Espazio hori jendea ahalduentzako espazio irekia da. Aldi berean, topaketa eta antolakuntza bulkatzen ari da; beraien errealitatea beraien aktiboki eraldatzeko espazio aktibo bat da. Bestalde, landa komunitateetako adinduei ere arreta eta laguntza emateko, espazio horretan eguneko zentroa sortzen ari dira.



Emakumezkoetan zentratutako programan aritu zen egarretarra. UTZITAKOIA



Estuarioan nabigatzen. UTZITAKOIA



Haurrak arrantzatutakoarekin. UTZITAKOIA



Emakumezkoak trebatzeko makina bat tailer eman zituen Solek. ARTXIBOIA

egiten dira. Espazio hori jendea ahalduentzako espazio irekia da. Aldi berean, topaketa eta antolakuntza bulkatzen ari da; beraien errealitatea beraien aktiboki eraldatzeko espazio aktibo bat da. Bestalde, landa komunitateetako adinduei ere arreta eta laguntza emateko, espazio horretan eguneko zentroa sortzen ari dira.

Indarra zerbaitean egin zenuen?

Ni, gehienbat, alfabetizazio prozesuan aritu nintzen. Askok bizitza osoan eskolara joateko aukerarik ez dute izan. Gainera,

hezkuntza afektiboa ere lantzen da. Jateko duin bat emateko, gutxienez hilean behin, bazkariak antolatzen dira. Proiektua pitteka hazten ari da. Laguntza handia behar zuten. Beraz, ni lanean egon nintzen, langile falta handia dagoelako esparru guztietan.

Osabak kontaktatu zenuen eta zuk ikusitakoaren artean, aldea zegoen?

Txiki gelditzen zen osabak kontaktatu zenuen. Berak cronicascojimies.blogspot.com/ bloga du eta bere kronikak igotzen ditu. Esperientzia oso polita izan da.

Bertan bitzitakoarekin oso pozik nago. Baina egoera bortitza da. **Behin bueltatuta, proiektuarekin harremanetan jarraitzen duzu?**

Bai. Gogo handia dut berriro itzuli eta laguntzen jarraitzeko. Baliabide falta handia dago bertan, jendea behar dute. Proiektua ez erortzeko finantzazioa ere behar da. ES64 3008 0138 9150 9874 7925 kontu korrontean (Rural Kutxa) proiektuaren aldeko ekarpenak jasotzen ari gara. Hemen hori bulkatzen saiatzen ari gara. Harremanetan segitzen dugu. Eta mugitzen, ni edo beste pertsona bat hara joateko.

Aurretik kooperazio ekimenen baten parte hartu zenuen?

Ez. Gizarte hezitzaile gisa Latinoamerikako zenbait herrialdeetan ibili naiz. Perun, Brasilen, Argentinan, Bolivian, Txilen eta Errumanian egona naiz. Beti gora eta behera. Pasio bat da. Bizitza horretara emana dut.

Ikasketetako teoriatik praktikara aldea sumatu duzu?

Hegoako masterrean oso gustura egon naiz. Ez dut hainbesteko alderik sentitu. Kooperazioaren eta garapenaren teoriaren inguruan oso kritikoa dira. Eta nahikoa praktikoa izan da. Teoriatik errealitateerako aldeak ez nau asko harrizten. Errealitatea askoz ere bortitzagoa da. Atera behar dugu, eta bertan murgildu jendartearen logika guztiak ulertzeko. Liburuetan ezin dugu hori ikasi. Praktika beti da unibertsitaterik onena.

Halako esperientziak zer ematen du?

Niretako bertan egotea pertsona hobe izateko aukera edo eskola bat izan da. Benetan axola duenaz arduratzeko aukera da ere. Boluntarioa edo kooperante oso esperientzia aberasgarria da: gizabanako gisa hazten laguntzen gaitu, eta ongizate kolektiboan laguntzeko aukera ematen digu. Nire esperientzia da elkartasunak ez duela mugarik. Gehien behar dutenen bizitzetan desberdintasuna ezarri dezakegu. Beraz, lankidetzeta eta esperientzia trukea eragin nabarmenak izan ditzake mundu bidezkoago bat eraikitzeko. Udalari berriro ere eskerrak eman nahi dizkiot: garapenerako lankidetzarekin duen konpromisoa oso beharrezkoa da. Nazioen arteko zubiak eraiki behar ditugu, guztiondako bidezko etorkizuna bermatzeko bide bakarra hori baita.

"LURRIKARAREN ONDOREN, BIZI BALDINTZA DUINAK BERRESKURATZEAN DATZA PROIEKTUA"

"COJIMIESEN BIZTANLERIAREN %65 GUTXI GORABEHARA MUTURREKO POBREZIAN BIZI DA"



ASTEKOA

OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU

Beste festa

Sansaastinak izan ditugu berriki Lakuntzan eta ekintza desberdinez beteriko egunak izan dira, hala nola: Txikien eta handien danborrada, ermitarako erromeria, bertako auzatea txistorra eta piperpopilekin, alkate dantza, eskolako txaranga, piperopil lehiaketa, buruhandi eta erraldoiak...

Ez dira faltatu kuadrillen bazkari eta afariak, juerga, poteoa... Hotza lagun, lakuntzarrek gure parte hartzearekin girotu dugu jela.

Beste festa ere hortxe izan dugu, prozesioa, barruko prozesioa, alegia.

Pote bat eta bestearen arteko isilune horretan norberak antzematen duena.

Elkarrizketa bat amaitu eta hurrengo hasi aurretik, gogora datorrena.

Dantza, irria, algara eta pozaren atzetik dagoen hura.

Juerga eta gero, etxeko atea itxi eta hasten dena.

Beste festa, barne prozesioa besterik ez da.

Norberak gure baitan ditugun kezka, beldur, pertsona edota gai

batetik ihes egiteko nahia, fantasia aitortu ezina, sakoneko tristurak...

Festak aukera ederra dira eguneroko errutinatik eta automatikotik atera eta poza eta juergari tartea egiteko, dantzarako, musikari leku eta espazio berezia emateko... Hala eta guztiz ere, ospagarria

JUERGA ETA GERO, ETXEKO ATEA ITXI ETA HASTEN DENA. BESTE FESTA, BARNE PROZESIOA BESTERIK EZ DA

litzateke, ene ustez, barne prozesioa kaleratzea programa ez ofizialean sartuko bagenu.

Jorge Oteizak zera zioen, hutsunearen presentzia areagotzen zela masa desokupatzerakoan. Nik bezalaxe, batek baino gehiagok lagunaren hutsunea sentitu dugu festa hauetan, eta Lakuntzako San Saastinetako barne prozesioan egon zara, lagun. Gogoan izan zaitugu eta zugatik, zauden lekuan egonda ere, topa egin dugu.

Gora zu, gora gu, gora barne eta kanpoko festak!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Kolpez kolpe, BOEz BOE

SAKANAKO AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZI PLATAFORMA

Urriaren 9an Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) Forestaliako Kyoko proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpena argitaratu zen eta azaroaren 23an Forestaliako UME proiektuaren eta REEren Itxaso-Castejon/Muruarte LATarena. Horrela, ingurumen izapide irregular, harrigarri eta legez kanpokoaren fasea itxiko dute.

Autopista Elektrikoaren Aurkako plataformak, hamar urte luzez egin duen lanari esker, gaur egun dauzkagun goi tentsioko bi lineen indartzea eta oso goi tentsioko beste bi linea berri eraikitzeke zituzten asmoak zapuztu ditu, eta Forestalia eta REE sustatzaileek partekatutako lerro berri

bakar bat eraikitzeke igarotzea lortu du. Ez dugu ahaztu behar, dena den, lurralde inpaktu itzulezina duten proiektu inposatuak direla guziak.

Urtarrilaren erdialdean, udaletara heldu da Forestaliaren Kyoko proiektuari Aurreiazko Administrazio Baimena ematen dion Ebazpenaren jakinarazpena. Heldu den egunetan iritsiko dira UMErenak eta REErenak. Baimen hori ez da izapide hutsa, ebazpen garrantzitsua da, fitxa mugitzera behartzen gaituena. Horregatik, plataformaren azken bileran aho batez erabaki berri administrazio bidean errekurtsioa jartzea.

Errekurtsioari eusteko arrazoi ugari daude. Garrantzitsuena da funtsezko

aldaketak daudela jendaurrean jarritako proiektuen eta azkenean onarturikoaren artean, eta horrela, indarrean dagoen Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legea urratzen da; horrek ingurumen ebaluazioko prozesu berri bat hasteko betebeharra ekarriko luke.

Esperientziak esaten digu, ordea, legezko bideak bakarrik erabiltzea ez dela nahikoa; horregatik, herritarren gehiengoaren borondatea errespetatzea ahalbidetuko duten informazio, kontzientziario eta mobilizazio mekanismoak berriro aktibatu beharko ditugu.

Sisiforen mitoan bezala, harriari berriro bultza egin beharko diogu, pentsamendu bakarraren aldapa maldatsuan zehar.



OBJEKTIBOTIK



Amaia Razkin @amaiarazkin · urt. 22

Ezagutzen dut leku sekretu bat tori koordinatuak eta itxaroidazu han.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirrolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ekintzaileek 21 enpresa sortu zituzten 2023an

Norberak duen negozio ideia gauzatzeko laguntza eske Cederna-Garalurrera jo daiteke, Arbizuko industrialdean dagoen Utzugeranera, Sakanako garapen zentrora. Hala egin zuten joan zen urtean 49 ekintzailek, laguntza eta aholkularitza jaso zuten

SAKANA

Cederna-Garalur ekintzailetza sustatzeko zerbitzua eskaintzen duen Nafarroa Ekintzailea sareko partaidea da. Sare hori Nafar Lansarek kofinantzatzen du. Beraz, Cederna-Garalur Sakanan ekintzaileei laguntza eta aholkua emateaz arduratzen da. Garalurretik jakinarazi dutenez, 49 ekintzailek eman zieten laguntza joan den urtean, haietatik 30 emakumezkoak ziren (%61,22) eta 19 gizonezkoak (%38,78). Garalurren Ekintzailetzari Laguntzeko Zerbitzuaren jardun horren ondorioz, 26 pertsonak bere enpresa sortu zuten, 21 guztira. 26 ekintzaileek langile autonomo gisa alta eman zuten joan den urtean. Negozio berrien forma juridikoari dagokionez, Garalurreko arduradunek jakinarazi dutenez, hoguei enpresaburu indibidual eta sozietate irregular gisa eratu dira, eta bat merkataritza-sozietate gisa".

Zerbitzu gehiago

Garalurrek ekintzaileak laguntzeaz aparte, martxan daude enpresei ere laguntza eta aholkularitza ematen dizkie. Hala, Garalurren Sakanako Ekintzailetzari Laguntzeko Zerbitzura jo zuten bi urte baino gutxiagoko antzinasuna duten 25 enprese-



Oskia Lazkoz Munarriz eta Susana Mendiñueta Flores, Cederna-Garalurrekoak.

tako arduradunek, eta bi urte baino gehiagoko antzinasuna duten zazpi.

Bestalde, Garalurrek eskualdeko ekintzailetza esperientziak zabaltzen eta dinamizatzen lagundu da, eta beste erakunde batzuek, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak esaterako, ekintzailetzarekin lotutako hainbat ekitalditan parte hartu du. Gainera, ekintzaileei eta autonomoei zuzendutako hamaika tutorial eman dira kolektibo horientzat interesgarriak diren hainbat gairi buruz: *Zer da ziurtagiri digitala,*

zertarako balio du eta nola lortu, Antolatu zure paperak Ogasunarekin betetzeko eta Nola egin zure izapideak Ogasunarekin online, ziurtagiri digitalarekin eta fakturen diseinuarekin.

Harremanetarako

Utzugeranetik astegunetan 08:00etatik 15:00etara pasa daiteke. Harremanetan jartzeko 639 900 336 (Susana) edo 619 328 264 (Oskia) telefonoetara hots egin edo sakana.admon@cederna.es edo sakana@cederna.es e-postetara idatz daiteke.



Langile bat kamioia garbitzen Utzubar EKO Gunean. ARTXIBOA

Hondakinen kudeaketa arautzen duen ordenantza berrituta

Aurrekoa onartu zenetik legedia berritu da eta baliabideak ere aldatu dira

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak hondakinen kudeaketa arautzen duen ordenantza berria joan zen urte akaberan sartu zen indarrean. "Aurretik zegoena eguneratu beharra zegoen, legedia aldatu delako", azaldu du Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko teknikari Olatz Garde Mazkiaranek. Izan ere, Nafarroako Hondakinen Plana onetsi zen 2016ko abenduan. Horretaz aparte, Europar Batasuneko 2018ko Hondakinen Esparru Zuzentaraua 2022an onartutako lege baten bidez sartu zen estatuko lege ordenamenduan. "Horregatik eskatu ziguten ordenantza berrikustea, baina berez ez da asko aldatu, orrazketa bat izan da", azaldu du Gardek. Legedia eguneratzean, besteak beste, ordenantzako isunen atala ere estatuaren legera egokitu behar izan du.

Bestalde, onartutako ordenantza berria ere kontuan izan dituzte dauden baliabide berriak edota bilketa bereziak ere. Haietako batzuk ordenantza fiskalean jasoak zeuden, baina ez hondakinen ordenantza. Gardek adibide gisa jarri ditu bilketa bereziak, *Irati* pelikula filmatzerakoan egin zena edo Urbasako rallykoa.

Horrekin batera, garbiguneak arautzen dituen ordenantza onartu zuen. "Ez zegoen halakorik eta garbiguneak arautzeko beharra ikusi genuen", argitu du Gardek. Gogorarazi duenez, Arbizun eta Altsasun daude garbiguneak, eta adierazi duenez, aurten Irurtzunen egingen da. Horretaz aparte, garbigune mugikorra dago. Zerbitzu publiko horien barne funtzionamendua eta erabilera publikoa arautu ditu orain ibarreko erakundeak. Ordenantzatik kanpo gelditu da Ziordiko garbigunea.

beleixe
107.3 FM

10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

PRENTSA ETA EGURALDIA
BATETI BESTIA
EGUNEKO ALBISTEAK
HIZKETAN
SOLASALDIA:
ARALAR ETA KARRAPE
IRRATIEKIN
AGURRA

Sanantondarrek etorkizunari kezka begiraten diote

Lau kofradietako kideek adierazi dute adinean gora doazela eta erreleborik ez dela

DORRAO / BAKAIKU / ITURMENDI / URDIAIN

San Anton eguna ilbeltzaren 17an izan zen, baina hari eskainitako kofradia sakandarrek asteburura aldatu zituzten. Lau herrieta-ko kofradietako kideek onartu zuten haiek adinean gora doazela eta atzetik ez dagoela erreleborik. "Lehen tradizioagatik edo lagunen bat kofradiako kide zelako sartzin ginen. Orain kofradiak ez ditu gazteak erakartzen", azaldu zuten Bakaikun. Bai han bai Urdiainen emakumezkoak sartzeko batera trabarik ez dagoela gogorarazi zuten. Aurtengo San Anton ospakizunak markatu dituen gertakaria Mikel Garziandia Goñi Palentziako gotzain ordenatzea izan da. Egun berean zenez, ibarreko apaizak Palentziarako bidea hartu zuten. Ondorioz, Dorraon eta Urdiainen ez zen elizkizunik egon, eta Bakaikun eta Iturmendin Sakanan bizi den Karol apaiz poloniarrek eman zuten.

Dorrao

Dorrobarrak larunbat goizean elkartu ziren. Hildako kofradiako kideen aldeko erresponstua egin zuten. Ondoren Itur-aldea elkartean gosalduta eta bazkalduta zuten. Gaur egun kofradiak hamazazpi kide ditu. Kide gehienak herrian bertan bizi dira, baina herritik kanpo bizi denik ere bada. Eta haiek elkartzeko egun aproposa izaten da San Anton. Aurten bajak bai izan dituzte. Osasun arazoak argudiatu dituzte askok kofradia uzterakoan. Kofradiako priore berria Francisco Lizarraga Etxeberria da. Eta haren bi laguntzaileak Borja Marin Lizarraga eta Jose Antonio Lizarraga Etxeberria dira. 2025ean ilbeltzaren 18an elkartuko dira atzera ere.

Bakaiku

Larunbat eguerdian elizan elkartu ziren. Mezaren ondoren batzarra egin eta ardurak eskuz aldatu zituzten: Xabier Goikoe-
txea-Ziordia Urrestarazu da maiordomo berria Eduardo Urrestarazu Fernandez ordez. Aurrenak utzitako belero ardura

Pedro Jose Zelaia Romeralek hartu du. Kofradiak gaur egun 80 bat kide ditu. 2023an Florentino Goikoe-
txea eta Julio Lopez de Zubiria hil ziren. Kofradiako kide baten amaren heriotzagatik bazkaria aurreratu zuten, hiletara joan ahal izateko. Mahaiaren bueltan 37 kide elkartu ziren.

Iturmendi

24 kideak domekako mezan izan ziren, aldean estandarte zaharberritua zutela; bi mihiseek argia eta kolorea berreskuratu dituzte. Alde batean San Anton dago, bestean San Migel, hari eskainita baitago herriko eliza. Arteen adituak eskatu zuten estandarte ez tolesteko. Kofradiako kideek erabaki zuten estandarte kristalezko egitura barruan gordeko dutela, elizan. Hori dela eta, orde-
zko estandarte bat egiteko aukera aztertzen ari da kofradia. Kideen susmoa da estandarte kofradia sortzearekin batera eginarazi zutela, XVII. mende akaberan. Ondare horretan egin-
dako lanagatik 2.000 bat euro ordaindu ditu kofradiak. Bestetik, azken urtean priore izandako Javier Jungituk ardura Jesus Galarzaren esku utzi zuen, eta haren banderadun kargua Esteban Azpirozaren esku gelditu zen.

Urdiain

Mezaren ordezkoi liturgiaren buru Migel Angel Zubiria Galartza kofradiako kidea izan zen. Hildako kofradiako kideen alde otoi-
z egin ondoren, elizan bertan, batzarra egin eta ardurak berritu zituzten. Javier Aiestaran banderadunak eta Jose Ramon Iri-
goien diruzainak lekukoa Fernando Goikoe-
txea eta Benito Aldazi pasa zieten. 42 urdindar dira gaur egun kofradiako kide. Azken urtean Cristobal Goikoe-
txeak bat egin du kofradiarekin. Bestalde, kofradiako bi kide hil ziren 2023an: Migel Aristizabal eta Celestino Zubiria. Azken hori urtetan kofradiako idazkaria izandakoa da. Tintinurri elkar-
tean gosalduta ondoren Aitziber elkartean bazkalduta zuten. Ilun-
tzean, berriz, buruzagien etxeetan jan-edanak dastatu zituzten.



Bakaikuko sanantondarrak elizkizunaren ondoren.



Iturmendiko San Anton kofradiako kideak, berritutako estandarte aldea dutela.



Sanantondar urdindarrak batzarra egin ondoren.



Lakuntzarrak auzolanean baldak muntatzen, atzean funtsak kaxetan gordeta. UDALA

Liburutegiak udazkenean zabalduko ditu ateak

Lakuntzako Udalak aurreikuspen hori du. Horretarako, udalak langilea kontratatu eta egoitza txukunduko du. Zabaldu ondoren Nafarroako Liburutegi Sarean sartuko da eta haren laguntza jasoko du

LAKUNTZA

Lakuntzako udaletxeko beheko solairutik ganboikora pasa zen liburutegia joan zen urtean. Udalak 100.000 euro inguruko inbertsioa egin zuen hutsik zegoen ganbara egokitzeke. Horretarako Landa Garapenerako Programako 50.000 euroko dirulaguntza izan zuen. Lanak despedituta, liburutegiko altzariak eta funtsak gora igotzea falta zen. Lan horiek bi auzolanetan egin zituzten lakuntzarrek. Gaur egun ganboikoan altzariak muntatuta eta funtsak kutxetan sartuta daude.

Lakuntzako Udalak aurtengo aurrekontuak eta udalaren plantilla onartu zuen ilbeltzaren 18ko bilkuran. Oihane Uribeetxebarria Garmendia alkateak azaldu duenez, "plantillan liburuzain lanpostua sortu dugu. Aurrekontu proiektuan ere jasoa dago lanpostua. Hori eginda, liburuzain izateko pertsona bat kontratazeko deialdia egingen dugu. Dena ongi badoa, liburutegiak irailean zabalduko lituzke ateak".

Alkateak zehaztu duenez, proposamena da liburuzainak %54 inguruko lanaldia izatea eta liburutegia 16:30etik 20:30era zabalik egotea. Kontratazioa aldi baterako izanen da eta hiru bat urteren buruan lanpostua betetzeko lehaketa deituko du udalak. Behin kontratazioa eginda, udalaren asmoa da liburuzainarekin batera liburutegirako proiektua zehaztea. "Guk ideia batzuk ditugu, baina, esaterako, langilearekin batera espazioaren banaketa eta bestelakoak zehaztu nahi ditugu; proiektua elkarrekin egin osatu nahi dugu", jakinarazi du alkateak.

Sarea

Nafarroako Liburutegi Sareko arduradunak Lakuntzako uda-

UDALAK ETA NAFARROAKO LIBURUTEGI SAREAK HITZARMENA SINATUKO DUTE

letxean bisitan izan ziren abenduan. Liburutegira udalak bideratutako espazioa bertatik bertara ezagutu zuten, baita udalak dituen asmoen berri jaso ere. Haien balorazioa ona egin zuten arduradunek. Udalarari jakinarazi ziotenez, behin eman beharreko pausoak eman eta liburutegia zabalik dagoenean, Lakuntzako liburutegia lagundu egingen dutela. Horretarako, bi erakundeek hitzarmena sinatuko dute. Behin hori eginda, Lakuntzako liburutegia Sarean sartuko dute eta, horrela, besteak beste funtsen katalogoa berritzeko laguntza izanen da. Itxi eta zabaldu ibili den udal zerbitzuaren ibilbide irregularra horrela egonkortuko da.

Bitartean, liburutegiak hartu zuen beheko solairuko espazioa haur txokoa da 2022tik. 6 urte arteko umeak jolasten egoteko tokia da gaur egun. Guraso talde baten eskaera jaso zuen udalak eta oniritzia emanda, haiek dira kudeaketaz arduratzen direnak.



Parean guztiz zaharberritu den eraikina.

Udalak eta Nasuvinsak lanak despeditu dituzte

Eskolak hartu zituen eraikineko behe solairuak erabilera anitzeko gela eta goian etxebizitzak egin dira

BAKAIKU

Kisugileak aspaldi alde egin dute Bakaikuko eskola zaharren eraikina izan zenetik. Azkenak joaten goiko solairuan lan egin zutenak izan ziren, azaro hasieran. Nasuvinsak alokairurako hiru etxebizitza egin ditu. Hark 12,5 urtez kudeatuko ditu etxebizitza horiek eta, ondoren, udalaren eskutara pasako dira.

Beheko solairutik kisugileak udarako alde eginak ziren. Izan ere, hiru erabilera anitzetako gelatako bat hauteslekua izan zen garilaren 23an. Orduetik puntualki erabili dira gela horiek: *spinninga* egiteko, hitzaldiren baterako... Bakaikuko alkate Egoitz Urritza Lazkozek azaldu duenez, "gelak janzteko altzariak jartzea falta da". Horretarako finantzabideak aztertzen ari dira. Alkateak gaztigatu duenez, bitartean udalak espazio horren erabilera arautu beharko du.

Urritzak azaldu duenez, *spinning* bizikletak udaletxetik espazio berrira eraman zituzten, ariketa egiteko. Baina yoga ikastaroan daudenak nahiago izan dute udaletxean segitu. Udaletxean segitzen dute dantza eta trikitixa ikastaroak. Eskola zaharreko beheko solairuaren erabilera arautzearekin batera, udalak udaletxeko gela horrekin zer egin pentsatu beharko du ere.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko legeari jarraituz, Bakaikuko eta Iturmendiko udalek ofizial administrarien lanpostu hutsa betetzeko lehaketa oposizio bidezko prozesua egin zuten. Hura bukatuta epaimahaiak lanposturako Maria Isabel Huarte Martija izendatzea proposatu du. Azkenik, udalak zerbitzu anitzetan aritzeko langilea aldi baterako kontratatuko du aurtan, etorkizunean egonkortzeko asmoz.

kaxeta
LIBURUGINDA

Zure eskulanendako
artilea

AZTECA
Igorria

www.kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

Txooooo!

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA

Irekiera
URTARRILAK 20

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

Etxarriarra apezpiku

Palentziako 102. gotzainaren ordenazioaren lekuko izan ziren makina bat sakandar. Esan zuenez, "kristau fedearen erronkak berriak dira, baina uste dut ebanjelioaren berritasunak balio eta indarrean dirauela gaur egungo errealitateari begira"

ETXARRI ARANATZ

Ibeltzaren 20az geroztik Mikel Garziandia Goñi Palentziako apezpikua da. Sei autobusetan eta makina bat autotan joandako sakandarrak ordenazioaren lekuko izan ziren katedralean bertan. Horretarako, autobusak 06:00etan abiatu ziren ibarretik, 19:00etan bueltatzeko. Gotzainaren etxeakoak ostegunetik zeuden Palentzian, eta gainontzeko senideak ostiralean iritsi ziren. Garziandiaren lehengusuetako bat, Itziar Goñi, Amerikako Estatu Batuetatik propio etorri zen ordenaziora. Senide guztiek katedralean tokia erreserbatuta zuten, baina 10:30erako han egon behar zuten.

Garziandia katedralera propio eraberritutako Gotzainaren atetik sartu zen. Ordenazioan zehar Alfonso anaia, Baztanen apaiz, eta Jesus Rodriguez Torrente, Espainiako Rotako auditorea izan zituen laguntzaile. Inguruan zituen ere kardenal bat eta beste 24 gotzain. Hainbat errituk osatzen dute apezpiku baten ordenazioa, eta haietan sakandarren presentzia izan zen. Hitzaren liturgian, aurreneko irakurketaren ondoren gotzainaren anaia Xabierrek erresponstu salmoa kantatu zuen.

Gotzain intsigniak

Bernardito Auza nuntzio apostolikoak Garziandiari Elizan agintzen zaizkion Ministerioaren zeinuak eman zizkion: ebanjelioak, eraztuna, mitra eta bakulua. Bere katedran, aulkian, eseri ondoren hartu zuen kargua etxarriarrak. Garziandiak amak emandako urrezko eraztun batekin egin du bere apezpiku ikurra, hari gainera aldean zilarrezko pieza bat jarritz. Bestetik, apezpikuek bularrean era-

maten duten gurutzeta Aralarko santutegiko lagunek eman zioten hilaren 14an mendi gaineko elizan egin zuen kaperau gisa egin zuen azken mezaren ondoren. Horrekin batera, bakulua ere oparitu zioten, Aralarko aingeruaren irudia duena goian.

Bestetik, Garziandiaren gotzain armarrak halakoek dituzten kapela berdea, hamabi borlak eta gurutzedun Artzain Onaren makulua ditu. Erdialdean bi irudi daude. Eskuinean Ama Birjina Sortzez Garbiaren "Zatoz Ama" bertsioko irudia, pandemia garaian espainiar estatua zeharkatu zuena eta Galtzadako Bidea zabaldu zuena. Ezkerrean, berriz, Aralarko aingeruaren irudia. Bi irudien erdia, goian Espiritu Santua dago. Bertatik abiatzen den bideak armari osoa zeharkatzen du eta zabaldu egiten da erromesen maskorra jartzeko, Iruñeko eta Palentziako elizbarrutiak zeharkatzen dituen Donejakue Bideari erreferentzia eginez. Leloa *Quis ut Deus* latinezko esaldia da; *Nor Jainkoa bezala?* esan nahi du, eta Migel izen hebrearraren hitzez hitzeko itzulpena da.

Elizkizunean Katedraleko Kaperak Klasikoa, Regina Angelorum eta Etxarri Aranazko abesbatzak abestu zuten. Kanta batzuk elkarrekin abestu zituzten, besteak bakarrik. Garziandiak propio eskatutako kanta batzuk entzun ziren ordenazioan. Bukaeran gotzainari eskumuinak emateko jendea gerturatu zen bitartean

**GOTZAIN
INTSIGNIETAN ETA
ARMARRIAN
JATORRIARI BURUZKO
ERREFERENTZIAK DITU**

Etxarri Aranazko abesbatzaren emanaldia entzuten jende asko gelditu zen. Erreperorioan euskarazko kantu batzuk ere izan ziren. "Beste distira bat eman zion, nabaritzen zen etxarriarrak zirela", azaldu du bertan izan zen sakandar batek.

Ondoren

Ordenazioa despedituta, bazkaldu behar zuten hotelera kalejiran joan ziren Garziandia, senideak eta agintariak. Bidea zabalduen txistua eta atabala jotzen zuten etxeakoak eta Iruñeko seminariokoen fanfarrea. Bideko geldialdi batean senideek jota bat dantzatu zuten. Bazkaldu ondoren, agintariak joan zirenean, Garziandiari bi lehengusuk aureskua dantzatu zioten. Harendako ezustekoa izan zen, baina okasioak hala aginduta zutik egon zen. Une solemnearen ondoren, senideen ospakizunaren txanda izan zen, nahikoa dantza eta dantza egin zuten guztiek. Tarte batez gotzainak eta bere anaia Alfonsok familia ospakizuna utzi eta aldameneko hotelera joan ziren. Han etxarriarrak eta abesbatza zeuden. Azken horren zapia jarri zioten Maider Beltzak eta Irati Morentinek, lehendakariak eta idazkariak. Han ere bere gogoko kantak abestu zituen abesbatzak. Etxarriarrek muxuak eman zizkioten, baita telefonoarekin *selfie* argazkiak atera ere. Etxera 19:00etan abiatu ziren.

Senideak igandeko mezara gelditu ziren. Familiakoak bertan zirela jakitun, ordenazioan bezala, Palentziako lehen mezan ere euskara pixka bat erabili zuen Garziandiak. "Familia giroan asteburu oso polita" pasa izanaren sentipenarekin, senideak "pozik" bueltatu ziren.



Gotzain berriaren makuluan Aralarko aingerua dago. PALENTZIAKO ELIZBARRUTIA



Ordenazioaren ondoren bazkaltzera kalejiran joan ziren. UTZITAKOA



Senide eta sakandar ugariz lagunduta egon zen Garziandia. UTZITAKOA



Etxarriko abesbatzak emandako ttattarrarekin, eta kantatzen. UTZITAKOA



Lizerratarak Bargazpi tabernako terrazan. Goiko solairuan bi etxebizitza eginen ditu kontzejuak. ARTXIBOA

Bi etxebizitzak aurten eginen dituzte

Lizarragako Kontzejuak medikuarena zen etxean gizarte alokairura bideratutako bi etxebizitza egiteko lanak aurten egin nahi ditu. Bi etxebizitzak urtea despeditzerako eginak nahi lituzke. Bitartean haiek emateko baldintza plegua prestatuko du

LIZARRAGA

Lizarragako Kontzejuaren aurtengo aurrekontuetan 263.670 euroko diru sarrerak daude, joan zen urtean baino 20.500 gehiago. Herriko kontuetan aurreikusitako gastuak, berriz, 259.720 eurokoak dira, 2023an baino 77.000 gehiago. Eneko Etxarri Amorinek, kontzejuko presidenteak, esan duenez, "aurrekontua handitu

da inbertsio gehiago eginen ditugulako". diru kontuetan inbertsioetarako zehazki 201.000 euro daude jasoak.

Medikuaren etxea zenaren beheko solairua konpondu eta han Bargazpi taberna zabaldu zuen Ergoienako Kontzejuak 2019ko garagarrilaren 9an. Gai- nuan etxebizitza zegoen. Auzo- lanean solairu guztia hutsik utzi

zuten eta kontzejuaren asmoa da han gizarte alokairurako bi etxebizitza egitea, 60 bat metro karratukoak. Etxarrik azaldu duenez, "orain etxebizitzak eginen dituzten eraikitzaileak kontratatzeke lanetan ari gara. Apirilerako eman nahi genituzke lanak. Ondoren, kontratua hartzen duen enpresak sei bat hilabete izanen ditu bi etxebizitzak

egiteko". Beraz, lanak urte akaberarako despedituta egonen dira, "lehenago ahal bada, hobe!", nabarmendu du presidenteak.

Lanak finantzatzeko kontzejuak bere dirua jartzeaz aparte, Ergoienako Udalaren eta dirulaguntza baten ekarpena izanen du. Etxebizitza pareta egiten denerako, haiek emateko araudia egin beharko du kontzejuak. "Etxeak nola eman jakiteko baldintza eta aukera guztiak aztertu nahi ditugu". Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoaren atean jotzea ez du baztertu.

Taberna, enkantera

Lizarragako 2019an hiruzpalau urte zeramatzan herrian tabernarik ez zuela. Herrian bi elkar- te egonagatik ere, denak sartze- ko moduko espazio bat nahi zuen kontzejuak. Topagunea izateaz aparte, herriari bizia emanen zion zerbitzu bat irudikatu zuen garaiko kontzejuak taberna. Hura egin ondoren, errentan eman zuen. Baina Bargazpi tabernaren kontzesioa aurten despedituko da. "Epea bukatu denez, taberna berriro enkantera atera behar dugu. Zer baldintzatan eman behar dugun begiratu beharko dugu. Asmoa da enkante deialdia maiatza aldera egitea", jakinarazi du presidenteak.

Inbertsio gehiago

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jasoz gero, Lizarragako Kontzejuaren nahia da dermioko bideak konpontzea. "Paseatzen ari direnek atsedean hartzeko, Erregaioko bide bazterrean bankuak jarri genituen joan zen urtean. Jende asko ibiltzen da han pasieran, eta bidea gaizki dagoela esan izan digute", azaldu du Etxarrik. Aipatu bidea eta

San Martin ermitara eramaten duena konpondu nahi lituzke aurten kontzejuak.

Bestetik, basoa saldu zuten eta salmentatik lortutako diruaren %20 berriro basoan inbertitu beharra dute toki erakundeek. "Bideren bat konpondu edo itxituraren bat egitea pentsatzen ari gara", azaldu du presidenteak. Bide batez, basozainei aurten basoa saltzea dagokien galdetu diete. Bestalde, Lizarragako Kontzejuak bozgorailuak eta proiektorea erositzen joan zen urtean, horiek emanaldiak egiteko baliatzen dituzte.

Kargu aldaketak

Joan zen urteko maiatzaren 28an kontzejuak berritzeko hauteskundeak ere egin ziren. Lizarragako Kontzejuak garagarrilaren 17an eratu zen, kontzejuko presidentearen ardura Unai Navarro Aristorenaren eskutik Eneko Etxarriren eskuetara pasa zen. Etxarrik aparte kontzejuak osatzen dute Naroa Etxarri Senarrek, Lorenzo Nuñez Perezek, Miren Iosune Andueza Osterizek eta Erkuden Caravilla Lezeak.

Etxarrik jakinarazi duenez, "kontzejuak gaudenok erabaki dugu presidente kargua txandakatzea. Bakoitzak urte bat eginen du kontzeju buru gisa. Hauteskundeetara hautagaitza aurkezteko modua eman izan aukera horrek". Beraz, Etxarrik kargua garagarrilean utziko du. Ondorioz, festetarako kontzejuko buru berria izanen da.

BARGAZPI TABERNA EMATEKO ENKANTEA MAIATZA ALDEAN EGIN NAHI DU KONTZEJUAK

EGURDIAN
sutarako egurra

608 57 03 57
etxea berotzeko ezinbestekoa

Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

xapatero
taberna

Asteburuetan giro ederral

948 460 162 · Etxarri Aranatz

PORTUKO

okidenaia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

IRAGARKI LABURRAK
ZOZKETAK
ARGAZKI LEHIAKETAK
ZORION AGURRAK
DUELA 25 URTE
AGENDA
IRITZI ARTIKULUAK
HIZKETAN
KOMUNITATEA
ZUZENEKO
KONTAKIZUNAK
GIDA KOMERTZIALA

www.guaixe.eus





Emakumezkoak eta umeak Irañetan. ARTXIBOA

D eredia %80an, ez aurrera ez atzera

Euskara hutsezko ikasketetako matrikula kopuruak puntu erdi egin du behera azken ikasturtean. Jaitsiera dagoen hirugarren ikasturtea da. Gaur egun ikasleen %80,2k ikasten dute euskarazko ereduari. B ereduak egin du gora bakarrik

SAKANA

Ibarrean gaztelania da hizkuntza hegemonikoa. Testuinguru horretan, euskararen normalizazio eta biziberritze prozesua bulkatzeko ezinbesteko tresna da hezkuntza, euskararen ezagutza unibertsala lortzeko ezinbesteko tresna baita. Ikasleak euskarari murgiltzen dituen D eredia da ibarrean ofizialak diren bi hiz-

kuntzak ikasteko modurik onena. Hala berresten dute hezkuntzako eta soziolinguistikako adituek. Horregatik, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, euskara hutsezko ereduaren aldeko informazioa gurasoen artean zabaltzen du urtero-urtero, D ereduari buruz izan ditzaketan zalantzak uxatu asmoz.

Euskara Zerbitzuak Sakanako ikastetxeetako matrikulazio datuak jaso ditu. Haietan ikusten denez euskalduntzeko gutxieneko baldintzak eskaintzen ditu D ereduak. Goia 2018-2019 eta 2020-2021 ikasturteetan jo zuen matrikulazioaren %82,5ekin. Baina murgiltze eredia %80ko hesi horretan dago tratatuta azken urtetan; are gehiago, azken hiru

ikasturteetan 2,3 puntu galdu ditu, matrikularen %80,2an geldituz (2.203 ikasle, 11 gutxiago). A ereduari ikasleen %15,9 (437) ikasten ari dira, aurreko ikasturtean baino 0,1 eta 2 ikasle gutxiago. A eredia Irurtzunen eta Altsasun eskaintzen da. B ereduari, berriz, %3,9 (107), aurrekoan baino 0,6 eta 15 ikasle gehiago. Sakanan, guztira, 2.747 ikasle daude Haur Hezkuntzan (HH), Lehen Hezkuntzan (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), aurreko ikasturtean baino 2 ikasle gehiago.

Zikloka

Haur Hezkuntza Sakanako ikasleen %18,35 ikasten ari dira, hau da, 504 ikasle, aurreko ikasturtean baino 39 gutxiago. D ereduari ikasleen %84,33 dago (425 ikasle, 25 ikasle eta 2,23 puntu gutxiago). Hirugarren ikasturtean galdu ditu ikasleak. A ereduari Haur Hezkuntzako ikasleen %9,92 hartzen ditu (50, 1 eta 0,9 gehiago). Bi urtez ikasleak galdu ondoren, beherako joera eten du. Azkenik, B ereduari ziklo horretako ibarreko ikasleen %5,75 dago (29, 5 eta 1,33 gehiago). Hirugarren urtez jarraian gora egin du B ereduari.

Lehen Hezkuntza daude ikasleen %48,05. Guztira 1.320 ikasle dira, aurreko ikasturtean baino 16 ikasle eta 0,55 puntu gehiago. Euskarazko murgiltze ereduari ikasten ikasleen %81,21 daude (1.072 ikasle, 32 ikasle eta 0,46 puntu gehiago). Bigarren ikasturtean jarraian hazi egin da D eredia. A ereduari ikasleen %12,88 daude (170, 26 eta 2,15 gutxiago). Azkenik, B ereduari ikasten ari direnak ikasleen %5,91 dira (78, 10 eta 0,7 gehiago).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten ari dira Saka-

nan matrikulatutako ikasleen %33,6. Guztira 923 ikasle dira, aurreko ikasturtean baino 25 ikasle eta 0,89 puntu gehiago dira. Euskara ardatz duen D ereduari DBHko matrikularen %76,49 hartu du ikasturte honetan, aurrekoan baino 2 ikasle gehiago. Hirugarren ikasturtean igoera txiki bat izan da. Baina ehunekoei dagokienez, aurreko ikasturtean baino 1,91 puntu gutxiago dira. Izan ere, A ereduari ikasleen %23,51 daude matrikulatuta, 217 ikasle hain zuzen ere. Horrek esan nahi du 23 ikasle eta 1,91 puntu irabazi dituela.

Azterketa

Euskalgintzaren Kontseiluak hezkuntzaren bere azterketa plazaratu zuen ikasturte hasieran. Kontseiluak, gainontzeko arloetan bezala, hezkuntza ere "ezinbestekotzat" jo zuen "jauzi bat egitea egungo egoerari eta etorkizuneko erronka handiei aurre egiteko". Besteak beste, aipatu zituen eskolaren testuinguruan eskuratutako gaitasunak ez direla hizkuntza praktiketan eta erabilera sozialean islatzen. Kezka agertu zuen ikasketak D ereduari egindako hainbat ikasle ez direlako iristen biziko arlo guztietan euskaraz eroso aritzeko adinako gaitasuna izatera. Gainera, "zenbaitetan zaugarritasun soziolinguistikoa eta zaugarritasun sozioekonomikoa batera gertatzen dira, ikasle askoren euskaraz jabetzeko aukera nabarmenki apalduz".

EUSKARAZKO EREDUAK AZKEN HIRU IKASTURTETAN Matrikularen 2,3 Puntu Galdu Ditu

ZURTEAN 1964 GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

🍞 | 🥞

<p>ALTSASU 678 323 403 Irudia Hiribidea, 48 948 468 026 Zumalakarregi Plaza,3 670 389 017 San Juan Kalea, 50 948 562 185 Ondako Kristo Deuna, 19</p> <p>UHARTE-ARAKIL 691 83 41 36 Mandikoa, 3</p>	<p>VITORIA-GASTEIZ Postas, 33 945 148 368 Arriagako Atea, 12</p> <p>ETXARRI-ARANATZ 948 461 660 Kale Nagusia, 4</p> <p>ARAIA 945 314 572 Andoni Urrestarazu, 3</p>
--	---

KINTOAK



Olatziarrek mustuko dituzte aurtengo kinto ospakizunak. UTZITAKOA

Kintoak otsaila iristeko irrikatzen daude

Hemezortzi gazte olatziarrek kinto ospakizunak izanen dituzte otsailaren 1etik 5era, ostegunetik astelehenera. Bost egunetan La Cigarra txarangaren laguntza izanen dute kinto eskean aritzeko

OLATZAGUTIA

Aurten kinto izanen diren gazte sakandar guztiek atzera kontua martxan dute, beraien egun handiak bertan baitira. Urduritasuna, batetik, antolakuntzako azken ukituak egiten ari direlako. Eta, bestetik, jantziak eta lotu beharreko guztiagatik. Sakanako kinto ospakizun goiztiarrena Olatzagutikoa izanen da. 2005ean jaiotako hemezortzi kintok osatzen dute aurtengo kinta: Olatz Bados Ganuza, Uxue Ondarra Lopez, Joane Garcia Duran, Valentina Costadinova Chimeva, Maddi Goia Anton, Irune Etxaniz Etxandia, Saioa Pascal Alegria, Mara Gomez Zabala, Iraia Sevilla San Gil, Araitx Gurmino Gabari, Harri Landa Lasa, Eukene Urrea Herrero, Julen Martinez Gonzalez, Amaia Santamaria Iglesias, Andoni Mainieri Perez, Jon Lopez de Goikoetxea Perez, Iker Pires Cerro eta Aimar Rodriguez Lorea. Guztiak ere ilbeltzeko azken egunean gazte-

txean afaltzera elkartuko dira. Hor haien festako azken hari muturrak lotuko dituzte.

Otsailak 1, osteguna

Hemezortzikotea, baserritarrez jantzita, goiz kaleratuko da. 07:00etarako kinto eskea haste-ko asmoa dute. Ordu horretan lanera joan edo autobusa hartu behar dutenei eskatuko diete dirua. Bi taldetan banatuko dira. Bata industrialdeetara joanen da diru eske. Aurretik ospakizunaren gastuei aurre egiteko laguntza eskatuz gutuna bidali diete enpresei. Beraz, lantegietan dirua jasotzea besterik ez da izanen. Hango lanak azkar eginda, herrian denda eta establezimenduetan eskean ari den kinto taldearekin elkartuko dira. Kinto festak iraunen dituen bost egunetan gazteei soinu banda herriko txarangak, La Cigarra, jarriko dio. Hamaiketako hartzeko geldituko dute kinto eskea. Baina behin

indarrak hartuta kalez kale eta etxez etxe eskean segituko dute gazteek. Bazkaldu ondoren ere txarangak lagundutako kinto eskean segituko du, bost eguneko parrandak aurrekontu handia eskatzen baitu. Afaldu ondoren gaztetxean izanen den beti kintoen afarira joandakoe-kin bat egingen dute.

Aurreneko egunean gaztetxean hartuko dute hamaiketako. Hurrengoetan bi elkarteetan eta bi tabernetan izanen da. Egunero Clinkerren bazkalduko dute eta afariak, berriz, herriko tabernatan egingen dituzte. Txarangaren musika akonpainamendua 19:30era arte izanen dute egunero kintoek.

Otsailak 2, ostirala

Hamaiketako jan ondoren, txaranga lagun dutela, kintoak eskolara joanen dira 11:00etan. Ikasleen artean miresmena sortzen du urtero kintoen bisitak, gainera beti izaten da kinto se-

nideren bat duen ikasleren bat ere. Txikienek ere kintoei dirua emanen diete. Eskolatik atera ondoren poteoa eta kinto eskea uztartuko dituzte gazteek. Bazkariko etenaren ondoren, kinto eske musikatuarekin segituko dute. Baina hura 19:30ean etenen dute, ordu horretan plazan gazteek herriko zortzikoa dantzatuko dutelako. Dantzarako doinua La Cigarra txarangak jarriko du. Afaldu ondoren festa ospakizunak segituko du. Gainera, gaztetxean kontzertuak izanen dituzte.

Otsailak 3, larunbata

Txarangak lagunduta, hamaiketako hartu ondoren, kinto eskean ariko dira gazteak poteoan dauden bitartean. Larunbat hori egun handia izanen da Olatzagutian. Izan ere, kintada guztietako herritarrak elkartu eta nor bere kintoekin bazkaltzera joanen dira. Beraz, bazkaldu aurreko poteo animatua kinto eskea egiteko aukera aproposa izanen da gazteendako. Bazkaldu ondoren, poteoan izanen dira gazteak. Udalak kontratatutako elektrotxarangak eta gaztetxeko erromeriak parrandari doinua jarriko diete.

Otsailak 4, domeka.

Santa Ageda bezpera

Aurreko egunetan bezala, hamaiketako hartzeko garaian elkartuko dira gazteak. Eta ondoren, kinto eskean ariko dira, bazkal garairaino. Arratsaldean kintoak, musika lagun, poteoan eta eskean segituko dute. Afaldu ondorengo parrandari ez diote uko egingen.

Otsailak 5, astelehena

Hamaiketako hartu ondoren, eguerdian, poteo garaian, gazteak eskean ibiliko dira. Bazkaldu ondoren, gauza bera egingen dute. Eta afaldu ondoren, gaztetxea gauerako hartu dute. Han despedituko dute kinto ospakizuna. Olatzagutiko kinto ospakizunetan ohitura herriko adinduenari, gazteenari, alkateari eta medikuari opil bana oparitzea. Gazteak haiekin hitz egitekoak dira, egokien zaien egunean opila ematera joateko. Aurten, gainera, mediku ohiari ere oparituko diote opila.

IHOTEAK

ETXARRI ARANATZ ANDREKUNDE

OTSAILAK 1, Osteguna

19:00 Txatarrak kalez kale ibiliko dira. Kintoak.



ETXARRI ARANATZ

Hemen da ihotea

Asteartehote aurreko hiru ostegunetan kintoak txatarrez jantzi eta zigorra eskutan kalez kale ibiliko dira jendea berotzeko asmoz. Aurreneko ilbeltzaren 25ean egin zuten, eta hurrenak otsailaren 1ean eta 8an izanen dira. Ostegun horietako bakoitzak bere izena du: gizakunde, andre-kunde eta garikunde hurrenez hurren. Andrekunde egunez, oraingorik ere, etxe batzuetako emakumezkoak elkarrekin afaltzen dute, lagun talderen bat ere.

Hiri ihotea, zaldunietan, otsailaren 10ean izanen da, larunbatetarekin. Etxarriarrek moztarotako duten irudimena soinean, agerian, erakutsiko dute. Moztarotuta parte hartzeko deialdia egingo dago. Herri ihotea, berriz, otsailaren 13an, astearteyotean ospatuko da. Ihoteen antolatzaileek txatarrez eta trapezu zaharrek moztarotzeko gonbidapena egin dute.



FESTAK



LAKUNTZA 'Alkate dantza' egin zuten kinto eta kinto gazteak.



LAKUNTZA Gau erdian hasi zen danborrada plaza girotzen.



LAKUNTZA San Saastin ermitako auzatea.



OLAZTI San Sebastian ermitan auzatea egin zuten.

0 km
SAKANAKO
GIDA

ARRANDEGI
BATEN BILA?

<https://guaixe.eus/gida/>

Independentziari buruzko galdeketa, ospatzera!

Aurten hamar urte beteko dira etxarriarrek Euskal Herriko independentziari buruzko herri galdeketa antolatu eta hartan parte hartu zutela. Galdeketa oroitzea eta ospatzera merezi duela iritzita, efemeridea ospatzeko aurreneko pausoak ematen hasi dira

ETXARRI ARANATZ

Arenys de Munten independentziaren inguruko aurreneko herri galdeketa antolatu zuen 2009. urtean. Ondoren Kataluniako beste 300 bat herritan egin ziren galdeketa. Halako zerbaitek herrian egin zitekeela iritzita, etxarriar talde bat elkartu eta A13 ekimena sortu zuten. Independentziari buruzko herri galdeketa apirilaren 13an egin zenez, datatik hartu zuten izena. A13ko kideek etxarriarrei honako galdera luzatu zieten: Euskal Herri independente bateko herritarra izan? 851 etxarriarrek eman zuten botoa, %42,55eko parte hartzea izan zen. Aldeko botoak 804 (%94,48) izan ziren, ezezkoak 18 boto (%2,12), boto txuriak 18 (%3) eta baliogabeak, azkenik, 3 (%0,35). Herri galdeketaarekin batera, egun osoko egitarau zabal prestatu zuen.

Aurten hamar urte betetzen dira independentziari buruzko herri galdeketa egin zela. Euskal



Etxarriarrek ilara egiten herri galdeketa hautesleak sartzeko. ARTXIBOA

Herrian mota horretako aurreneko galdeketa izan zen Etxarri Aranazkoa. Hura antolatzeko "erabakitze eskubidearen aldeko herritar talde polita" elkartu zen. Efemeridea gogoan, hura gogoratu eta ospatu beharra

dagoela iritzita, etxarriar talde batek batzar irekia deitu zuen ilbeltzaren 24rako. Elkartu zirenek erabaki zuten, baietz, merezi duela zerbaite egitea. Herri galdeketa sustatu zen egun berean ospatu nahiko lukete efemeridea:

apirilaren 13an, larunbatarekin. Batzarrean izan zirenetako batek azaldu duenez, "oraindik dena berde dago, baina bakarren batek lagundu nahi badu, jo dezala 2014an galdeketa sustatu zuen ekimeneko kideren batengana".

Olatua

Etxarri Aranazko herri galdeketa pizgarria izan zen eta ondoren Euskal Herrian halako hainbat galdeketa egin ziren. Gure Eskuk sustatu zituen independentziaren aldeko galdeketa 2017an. Sakanan Gure Eskuko taldeak bederatzita herrietan sortu ziren eta haietan galdeketa egin zen, zehazki: Irurtzunen, Irañetan, Arruazun, Lakuntzan, Arbizun, Urdiainen, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian.

Herri bakoitzean sortu zen taldeak erabaki zuen erabakitze eskubideari buruzko ariketan herritarrei zein galdera egin. Herri batzuetan bigaldera zituzten boto paperekin. Formulazio desberdinekin, baina herri gehienetan etorkizun politikoa erabakitze burujabeak izatea nahi zuten galdetu zuten. Herriatik herrira subjektua ere aldatzen zen Euskal Herri, Nafarroa edo herri burujabe bateko herritarra izatea nahi ote zen galdetu zuten.

2017ko garagarriaren 17an hautesleketara 2.962 sakandar joan ziren botoa ematera. Hau da, parte hartzea %23,68koa izan zen. Independentziaren aldeko botoak %94,87 izan ziren.



Iturmendiko San Migel eliza.

Teilatua konpondu diote Iturmendiko elizari

Iturmendiko San Migel elizak berritutako teilatua du udaz geroritik. Joan zen mendeko 70eko hamarkadako da erlijio eraikinen gaur egungo teilatua. Denboraren joanarekin teildura hondatu egin zen eta, ondorioz, teilak erori egiten ziren. Horrek parrokia elizaren inguruan segurtasun eremua jartzera behar zuen denbora tarte batez joan zen urtean. Teilatua garbitu, teilak behar bezala hartu, hautsitakoak ordezkatu eta teilatuko hodiak garbitzea, horiek izan ziren kisu gileak udan egin ziztuzten lanak. Haiengatik parrokiak 25.000 euro inguru ordaindu zituen. Lana iturmendiarrak emandako dohaintzekin finantzatu zen.

DUELA 25 URTE...



Jolas parke berria Urdiainen

Urdindarrek esan zezaketen Olentzerok jolas parkea oparitu zietela. Urteak ziren parkea berritzen hasiak zirela, eta, pixkanaka, aldaketa handia egin zuten. Jarritako jolasak egurrezkoak ziren, parkea mugatzen zuen ansarria edo larrez osatutako hesia kendu zuten. Besteak beste, parketik iturri zaharrera txirrista eta eskalatzeko gunea jarri zituzten. Izan ere, parkeko lanak baliatu zituzten iturri zahararen ingurua ere berritzeko.

Ezkilak dantzan

Florencio Rosello Avellanas Iruñeko Artzapezpiku eta Tuterako Apezpiku ordenatuko dute larunbatean, 11:00etan. Hori dela eta Sakanako ezmila joleak ezmila errepikak joko dituzte. Joan den larunbatean hala egin zuten Lizarraga, Etxarri, Bakaiku eta Altsasukoek Etxarri Aranatzen, Mikel Garziandia Goñiren ordenazioagatik.



FUTBOLA

EMAKUME PREFERENTEA

14. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Berriozar **3-3**

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA

1 Tudelano **33**
9 Altsasu **5**

HURRENGO JARDUNALDIA

ILBELTZAK 27, LARUNBATA

18:15 Altsasu - Gares (Dantzaleku)

Altsasu, bide onean

Berriozarrek azken unean berdindu zion Altsasuri. Hurrena, Gares arerio zuzena.

GIZON PREFERENTEA

17. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Irunxiki - Altsasu **0-0**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades B **35**
10 Altsasu **25**

HURRENGO JARDUNALDIA

ILBELTZAK 27, LARUNBATA

16:00 Altsasu - Univ. Navarra (Dantzaleku)

Altsasuk Universidad hartuko du

Azken jardunaldian Irunxikirekin husna berdindu zuen Altsasuk, eta promozioko postuetatik gertu jarraitzen du. Sailkapenean laugarren den Universidad de Navarraren kontra jokatu du Altsasuk bihar, goiko postuetan arerio zuzena.

Zalduak Unziti aurkari

Elomendiko Txapelketan, sailkapenean laugarren den Arakilgo Zalduak Unzitiren kontra jokatu du Larrabiden.

GIZON ERREGIONALA

15. JARDUNALDIKO EMAITZA
Liceo Monjardin - Etxarri Aranatz **0-3**
Robxapea B - Lagun Artea **4-2**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Mutilbera C **36**
2 Etxarri Aranatz **32**
6 Lagun Artea **22**

ILBELTZAK 27, LARUNBATA

18:15 Kirol Sport - Lagun Artea (Orkoien)

18:30 Lagunak B - Etxarri (Barañain)

Etxarri, ikusgarri

Etxarri Aranatzek garaipen garrantzitsua lortu zuen Liceo Monjardinen kontra, txapelketako bigarren postuan segitzea ahalbidetzen diona. Bihar, Lagunak B.

Lagun Artearen estropezu

Lagun Arteak ezin izan zuen Robxapea B-ren kontra. Bihar zortzigarren den Kirol Sport arerio zuzena du aurkari.



Zabaleta, Peio Etxeberria, Jaka eta Eskiroz, larunbateko Labriteko partidarako material aukeraketan. ASPE

Binakako Txapelketak, saltsa handia

PILOTA Jaka-Mariezkurrenaren eta P.Etxeberria-Zabaletaren estropezuak sailkapena estutu du, eta ez da emoziorik falta. P.Etxeberria-Zabaletak eta Altuna-Martijak euren egoera sendotu nahi dute, eta Ezkurdia-Tolosak arrisku gunetik atera

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako hamaikagarren jardunaldia jokatu da asteburuan, eta oraindik asko dago erabakitzeke. Sailkapeneko lehen bi bikoteek, Jaka-Mariezkurrenaren eta Peio Etxeberria-Zabaletak, hamargarren jardunaldian galdu egin zuten, eta estropezu horrek saltsa gehiago jarri dio berez zoroa den txapelketari; sailkapena oraindik zabal-zabal dago, alternatibekin. Beraz, geratzen diren lau jardunaldietan edozer gerta daiteke.

Sailkapena oso estu dago. Jaka-Mariezkurrenaren jarraitzen dute lider (8 puntu), Peio Etxeberria-Zabaletaren (7 puntu) eta

Artola-Imazen (6 puntu) aurretik. Altuna-Martijak eta Elordi-Rezusta bosna puntu dituzte, Peña-Albisuk 4 puntu, Ezkurdia-tolosak 3 puntu, eta Laso-Arangurenak 2 puntu.

Txanponaren bi aldeak

Ezkurdiak eta Tolosak kolpe latza jaso zuten igandean Eibarren, Altunaren eta Martijaren kontra 13 eta 22 galdu eta gero. Hasieran parez-pare ibili ziren bi bikoak, oso orekatuta (7 eta 7, 8 eta 9). Martijak indartsu jotzen zuen, baina Tolosak ongi eusten zion, itxura ona emanaz. Eta berbera aurreko koadroetan. Jokaldi polemikoan, Tolosaren pilotakada batek txapa jo zuela erabaki zuen

epaileak, Anoetako atzelariaren haserre piztuz, berarendako ez baitzen hala. 8 eta 11koak zeharo aldatu zuen partida. Tolosa ez zen pilotari berbera izan, eta Altunaren eta Martijaren nagusitasuna areagotu egin zen, partida apurtzeraino. 0-9ko partzialarekin, 8 eta 18ra joan ziren. Martijak piloteoan dominatu zuen, eta Altunak hobeki bukatu zituen tantoak Ezkurdiak baino. Bigarren txanpa horretan, Ezkurdiak eta Tolosak behera egin zuten eta Getarian erakutsitako mailatik urrun geratu ziren.

Gauzak horrela, Altunak eta Martijak pauso oso garrantzitsua eman dute play-offetan sartzeko. Bosgarren puntua bildu dute,

eta tanteoa irabazi. Aldiz, Ezkurdia eta Tolosa larrialdian daude berriro, 3 punturekin, puntu falta ikaragarriarekin.

Erabakigarria

Altunak eta Martijak Laso eta Arangurenen orde arituko den Urrutikoetxea izango dituzte aurkari larunbatean Bilbon. Euren seigarren garaipena lortu nahi dute lehenek, eta beheko putzutik ateratzea, berriz, bigarrenek. Egun berean Labritek sailkapeneko bi buruen arteko lehia hartuko du. Jakak eta Mariezkurrenaren tokia hartuko duen Eskirozek Peio Etxeberria eta Zabaleta dituzte aurrez-aurre. Nahiz eta torneoko bi jotzaile nagusien arteko lehia galdu, Mariezkurrenaren eskuin eskuan arazoak dituelako, goi mailako partida espero da, lidergoa eta goiko postuetan ongi eustea dagoelako jokoan. Ezkurdiak eta Tolosak igandean jokatu dute, Beotibarren, azken sei jardunaldietan bost garaipen lortu dituzten Artolaren eta Imazen kontra. Bi bikoteek nahi dute jokoan dagoen puntua: Ezkurdiak eta Tolosak, aukerak izaten jarraitzeko ezinbestekoa dutelako, eta Artolak eta Imazek, zaspigarrena lortu eta finalerdietarako txartela zuzenean lortzeko borrokan bete-bete sartzeko.

Arbizuk Mata izango du biko

Binakako B seriean, promesetan, Salaberriari berriro kailua ireki zitzaion, eta ezingo du jokatu. Matak hartuko du bere tokia, eta Aaron Arbizurekin bikotea osatuta, sailkapenean bigarrenaren diren Agirre eta Iztueta (7 puntu) izango dituzte arerio igandean Tolosan. Salaberriak eta Arbizuk 3 puntu dituzte, eta irabaztea, ez dute besterik.

Padel solidariotik, emakumeen padel topagunera

PADELA Sahararen aldeko padel txapelketa solidarioak Emakumeak Kirolean Lagun Topaketei eginen die leku

Arbizuko Utzubar industrialdean dagoen Sakana Padelek mugimendu handia du egunotan. Igandean, Attsf eta VG erakundeekin batera, Sahara aske baten aldeko padel txapelketa solidarioa antolatu zuen Sakana Padelek, dene-

tarik ekitaldiekin. Padel jokalariek jokatzen zuten bitartean, mokaduren bat hartu eta tea dastatzeko aukera zegoen, eta Saharari buruzko graffiti ederra margotzen ikusteko aukera, besteak beste. Zozketak ere izan ziren.

Saharako ekimenari Sakana Mankomunitateak antolatutako Emakumeak Kirolean Lagun Topaketak hartuko dio txanda. Ilbeltzaren 28an, igandea, 10:30etik 13:00ak arte ekimenean izena eman duten emakumeek padelean murgiltzeko aukera izango dute bertan, monitore baten irakaspenak jarraituz. Hurrengo topaketa otsailaren 25ean izango da, Olaztin, areto futbol topaketa. Izena ematea zabalik dago, Mank-en.



Partaideetako batzuk. UTZITAKOIA



Aritz Oiarbide, Jon Erdozia, Amets Aristizabal, Oier Mitxelena eta Joan Goikoetxea, Guaixeko erredakzioan.

Aizkolari belaunaldi berria

AIZKORA Sakana Aizkora Eskolan trebatutako Aritz Oiarbide, Jon Erdozia, Oier Mitxelena, Amets Aristizabal eta Joan Goikoetxea gazteek erakustaldietatik txapelketetara egin dute salto. Urrezko Aizkolarien Banakako Gazte Kopan murgilduta daude

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Aizkorak eta harri jasotzeak urrezko loraldia bizi dute. Urte askotan aurpegi berberak ikustera ohituta geunden, baina azken bi urteetan plazetan aurpegi berri asko ikusten dira, bai gizonak eta baita emakumezkoak ere. Tartean, aizkolari sakanarrak bere tokia egiten ari dira, Sakanako Aizkora Eskolak urte luzez egindako lanak fruitua eman duenaren erakusle.

Aritz Oiarbide Erdozia, Jon Erdozia Gonzalez de Pedrosa, Amets Aristizabal Vicente, Oier Mitxelena Mazkiaran eta Joan Goikoetxea Agirre dira Sakanako Aizkora Eskolan trebatu, eta Sakanako Herri Kirol Egune-tako eta Sakanako festetako plazako erakustaldietatik Nafarroako Federazioko Txapelketetara eta Egur Sport enpresak antolatzen dituen Urrezko Aizkolarien

Txapelketetara saltoa eman duten gazte sakanarrak. Erdoziak 20 urte ditu eta helduena da, eta gainontzekoek 18 eta 17 urte dituzte.

Aritz Oiarbide eta Jon Erdozia Etxarri Aranazko erdoziatarren sendikoak dira, aizkolari lotutako familiako kimu berriak. "Haurrak ginenean hasi ginen aizkora, 5 urte genituenean, aittunerekin eta aittakin. Egurrezko aizkorarekin berehala hasi ginen jolasten. Betidanik ibili gara aizkoraren munduan" azaldu du Jon Erdoziak. Juani-to da beraren eta Aritz Oiarbi-

**BINAKAKO URREZKO
GAZTE KOPAN
TXAPELDUNORDEAK
IZAN ZIREN OIARBIDE
ETA ERDOZIA**

deren aitona, urte mordoxka Sakanako Aizkora Eskolaren ardura duena, Jonen aita den Juanjo semearekin batera.

Amets Aristizabal urdiaindarra 10-11 urte zituela hasi zen Sakanako Aizkora Eskolan, "aizkora txikitatik gustuko" zuelako. Joan Goikoetxea etxarri-rra ere adin berberarekin hasi zen trebatzen. "Aizkora gustuko nuen, eta aitzak animatuta hasi nintzen Sakanako Aizkora Eskolan". Oier Mitxelena altsasuarra duela hiru urte hasi zen Sakanako Aizkora Eskolan trebatzen, "fundamentuz, joan zen urtetik".

Txirrindularitza eta aizkora Aritz Oiarbide eta Jon Erdozia txirrindularitza mundutik datoz. Sakana Group-Aralar taldean ibili ziren biak. Jon Erdoziak afizionatu mailara egin zuen

salto Rural Kutxa-Alea talde sakanarrean, baina 2023an, bigarren denboraldia hastera zihoala, utzi egin zuen. "Bigarren denboraldiko talde aurkezpena baino egun bat lehenago deitu nien utziko nuela esateko. Psikologoak deitu zidan, ongi pentsatzeko, baina ezetz erantzun nion. Izan ere, txirrindularitzan bakarrik horretara egon beharra duzu. Izugarri lotzen zaitu. Politika da, eta gauzak ongi ateratzen bazaizkizu satisfazio handia ematen duen kirola da, baina bizitza horretara mugatzen duzu. Astebururo lasterketak daude, zaindu beharra duzu, ezin duzu nahi duzuna jan... Urte asko neramatzen txirrindularitzan, eta beste gauza batzuk egin nahi nituen. Eta honaino, esan nuen. Orain beste gauza batzuetarako tartea dut, ez bakarrik aizkora aritzeko" dio Erdoziak. 2023 urtean hasi zen aizkora txapelketetan parte hartzen. "Ordura arte erakustaldiren batean atera nintzen plazara, baina txapelketetan 2023an hasi nintzen" aipatu du.

Aritz Oiarbide lehengusuak joan zen urtean bukatu zuen txirrindularitzako juniorren maila, eta ez zuen bizikleta gainean jarraitu. Aurretik txirrindularitza eta aizkora tartekatzen zituen, eta bizikleta utzi zuenetik aizkora ari da buru-belarri.

Kortea ongi eraman

Aizkora ikastea ez dela zaila diote. Teknika kontua omen da, eta orduak sartzea. "Aittunek esaten zigun lehena aizkorarekin ongi jotzen ikastea dela, eta ondoren abiadura bakarrik etorriko dela" dio Oiarbidek. "Hasieran aizkora dakien batek kortea zabaltzen dizu eta zulo antzeko bat bezala uzten du. Eta bertan aizkora moztearen mugimendu hori ikastea da kontua, segurtasuna hartzea. Lehendabiziko egunetik ezin zara kortea zabaltzen hasi, aizkorak ihes egin ahal dizulako" gaineratzen du Erdoziak. "Kortea ongi eramatea, hori da zailena" uste du Aristizabalek. "Bai, alde batekin eta besteare-

**AIZKORAN ETA HARRI
JASOTZEAN GAZTE
ASKO HASI DIRA
LEHIAN; AURPEGI
BERRIAK DAUDE**

kin bat egitea. Bestela denbora pila bat galtzen da, buelta eta buelta" dio Oiarbidek. "Kortea ongi eramaten ez baduzu, gurutzatzen da, eta gaizki" Goikoetxeak. Adarra ateratzearena, aldiz, "askotan gertatzen da".

Erakustaldietatik txapelketetara

Boskoteak Sakanako Herri Kirol Egunean eta Sakanako herrietako festa eta ekitaldietan parte hartzen zuen hasieran, Sakanako Aizkora Eskolako gainontzeko kideekin. Baita gaur egun ere, baina erakustaldietatik txapelketetara aurkezteko saltoa egin zuen. "16 urterekin Nafarroako edo Euskadiko Aizkora Txapelketetan aurkeztu daiteke. Hirugarren maila da baxuena, eta izena ematen duzun lehen aldiaren kategorian horretan hasten zara lehian. Ni Nafarroako Aizkora Txapelketetan hirugarren mailan hasi nintzen, 16 urte nituela" dio Aritz Oiarbidek. 17 urterekin Nafarroako hirugarren mailatik bigarren mailara igo zen, eta 18 urterekin, 2023an, bigarren mailako kanporaketa jokatu zuen; ez zuenez igotzea lortu, aurten bigarren mailan jarraituko du. "Bigarren mailako kategoriari eustea, hori zen helburua joan zen urtean, aldi berean txirrindularitzan bainengoan, juniorren azken urtean. Beraz, kontentu nago". Jon Erdoziak 2023an hirugarren mailatik bigarren mailara igotzea lortu zuen, eta aurten bigarren mailan lehiatuko da, lehengusuarekin.

Joan Goikoetxea Aritzekin batera aurkeztu zen hirugarren mailako Nafarroako Txapelketetara, 16 urte zituela, eta kategorian horretan segitzen du. "Joan zen denboraldian belaunean lesionatuta ibili nintzen; ea aurten hobeki aritzen garen". Amets Aristizabal ere 16 urterekin aurkeztu zen Nafarroako hirugarren mailara, eta bertan segitzen du. Eta Oier Mitxelena 2023an aurkeztu zen lehenengoz Nafarroako Txapelketan, hirugarren mailan, eta kategorian horretan segitzen du.

Euskadiko Txapelketan ere kategorian mailakatze berbera dago. Izena emanez gero, hirugarren mailan hasi behar da lehiatzen. Baina Sakanako boskoteak orain arte ez du bertan izena eman. "Bere garaian federaziotik atera eta Sherpa taldea sortu zutenak, Iker Vicente buru

zela, gutxika federaziora itzuli dira. Hirugarren mailan hasi behar izan zuten guztiek, eta gertatzen ari dena da goi maila duten aizkolariak maila baxuagoa dutenekin lehiatzen ari direla, eta, jakina, eurak ari direla mailaz igotzen. Beraz, guk oso zaila izango genuke aizkolari handi horien parean. Guk igotzeko aukera izateraino... Pentsa, aurtan hirugarren mailatik Txikia eta Larrañaga igo dira bigarrena" dio Aritz Oiarbidek. "Hemendik lau urtetara, bakotza bere lekuan eta mailan egongo da" gaineratu du.

Binakakoan, txapelkunorde

2023an Egur Sport enpresak antolatzen dituen Urrezko Aizkolarien Txapelketetan parte hartzen hasi ziren Erdozia, Oiarbide, Aristizabal eta Mitxelena, Binakako Urrezko Gazte Kopan. Aritz Oiarbidek eta Jon Erdozia lehengusuek bikotea osatu zuten eta Oier Mitxelenaren bikotea Kimetz Oñederra "Aittola" zen. Amets Aristizabalek Aritz Oiarbide ordezkatu zuen lehen jardunaldian, etxarriarrari anginetan ebakuntza egin ziotelako. "Gutxi entrenatuta joan nintzen Binakako Kopara" dio Ametsek. Izan ere, astebete lehenago esan zioten ea Oiarbide ordezkatu ahal zuen. "Bi egunez entrenatu genuen, eta lehenengo egunean nabaritzen zitzaion entrenatu gabe zegoela, baina bigarren egunean askoz hobeki ibili zen. Eta plazan, nahiko ongi aritu zen" erantzuten dio Erdoziak. Etxarri Aranazko bikotea abenduaren 31n Asteasun jokatuako final Binakako Urrezko Gazte Koparako sailkatu zen, tartean Mitxelena eta Aittola bidean utzita. "Kanporaketa itxurazkoa egin genuen, eta ez gara kexatuko." dio Mitxelenak.

Oiarbidek eta Erdoziak txapelketa ederra egin zuten. Abenduaren 31n Asteasun jokatuako Binakako Urrezko Gazte Kopako finalean txapela gertu izan zuten, baina 45 ontzako lau enborrak 8:23 minututan erdibitu zituzten; Igoi Pikabea eta Unai Etxeberria "Osinaldek", aldiz, 7:50ean. Lehendabiziko enborrean aizkora hautsi zitzairen, eta enbor barruan geratu zen iltzatuta. "Indar gehiegi edo, eta lehendabiziko kortean aizkora ziskos! Horren gertu egonda pena da txapela irabazi ez izana. Irabaztea polita litzateke, horren egun berezian gai-

nera, urtezaharrean. Dena den, aizkorarena ez da aitzakia, beraien gu baino gehiago izan ziren. Eta guk berdin-berdin ospatu genuen" diote bi lehengusuek, irribarrez.

Banakako Urrezko Kopa

Orain Banakako Urrezko Kopan murgilduta daude. Ilbeltzaren 7an lehen kanporaketan Amets Aristizabalek eta Jon Erdoziak parte hartu zuten, Jokin Larrietarekin eta Ibai Emaldirekin. Erdozia onena izan zen eta finalerdietarako sailkatu zen (3:34), baina Aristizabal laugarren sailkatu zen (6:00) eta bidean geratu zen. "Atzera ere gutxi entrenatuta joan nintzen, egia esan, eta gaizki. Ea martxoan Sakanako Aizkora Eskolan hasten naizenean gehiago entrenatzen dudana". Oier Mitxelena ere finalerdietarako sailkatu da, ilbeltzaren 14an Leitzan jokatuako kanporaketan bigarren sailkatu ondoren (4:13), Unai Etxeberria "Osinalde"-ren atzetik (3:25). Aritz Oiarbide otsailaren 4an sartuko da lehiari, Beasainen.

Aurtan erakustaldi eta txapelketetan jarraitzeko asmotan da boskotea. "Serioago hasi behar dugu entrenatzen. Aizkora mozketan aritzeaz aparte, beste entrenamenduekin ere hasi behar dugu: korrika, mendira joan, indar ariketak egin... Aizkoran ongi ibiltzeko fondo ona behar baita. Ni joan zen urtean, txirrindulari nintzela, fondo handiagoa nuen aizkoran. Aurtan, errazago betetzen naiz. Fondoa lantzeko aizkorarekin bakarrik ezin da, beste kirol batzuk behar dira" dio Aritz Oiarbidek. "Hemendik beste puntara bitarteko enbor ilara luze bat eskura izango bagenu beti, ordu bat lasai-lasai gelditu gabe aritzeko, aizkorarekin fondoa landuko genuke. Baina ez dago horrenbesteko egurra. Aurreko egunean aittunek entrenamendu baterako egurra prestatu zigun, berak esandakoa baino bi enbor gehiago erdibitu genituen eta errieta egin zigun, ea zer pentsatzen dugun, ea denondako halako egur kopurua dagoen esanez.

LEHIAKETARA EGIN DUTE SALTO: NAFARROAKO TXAPELKETAK, ETA URREZKO AIZKORAKOAK



Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide, Binakako Urrezko Gazte Kopan. IBON ERRAZU



Oier Mitxelena, Urrezko Banakako Gazte Kopan. IBON ERRAZU



Amets Aristizabal, Sakanako Herri Kirol Egunean, Altsasun.



Joan Goikoetxea, Uharte Arakilgo Sakanako Herri Kirol egunean, atzean Aristizabal

Egurrarekin kontua izan behar da, ez baitago ere egurra birri-barra edonola entrenatzeko" dio Erdoziak.

Aizkoran entrenatzeko egurra prestatzea izaten da aizkolarien burukominetako bat. Ezin da egurra mendian nonahi hartu, nahiz eta haizearengatik edo ekaitzengatik basoan botata egon. Baimenak eskatu behar dira, markatuta daudenak jaso... oso araututa dago, eta ez da erraza.

Aurpegi berriak

Azkenaldian gazte asko hasi dira aizkoran eta harri jasotzean. Belaunaldi aldaketa. Aurpegi berriak daude. "Attunek ere esaten du mugimendu gehiago ikusten dela, jende berria" nabarmendu du Oiarbidek. "Bai, eta jende asko doa txapelketak eta apustuak ikustera, frontoiak topera daude. Gehienbat Gipuzkoako jendea da; han zaletasun gehiago dago, hemen baino askoz ere handiagoa" dio Goikoetxeak. Iker Vicentek jarraitzen du aizkolarien artean gorenean, baina Larrañaga eta Txikia indartsu datoz.

Belaunaldi berritze horretan, zerikusi handia du Sakanako Aizkora Eskolak. "Gu biok eskolara aitonari eta aitari laguntzera joaten gara, horrenbeste jende izena ematen duenez... Eskola ikasteko da, eta guk badakigu moztzen" dio Erdoziak. "Txikiak aizkoran ikusteak ilusio handia sortzen dio aittuneri. Aizkora sustatzeagatik jarraitzen du eskolan".

Mitxelena, sega eta aizkora

Oier Mitxelenak aizkora eta sega partekatzen ditu, bere aita Bixente Mitxelena segalariaren bidea ere jarraituz. Zer nahiago duen galdetuta, bien alde egiten du. "Neguan aizkora, baina udan biak" dio irribarrez. 2023an Euskadiko Gazte Mailako Sega txapelketa izan zen Mitxelena, eta udan Europako Sega Txapelketan parte hartu zuen, Eslovenian, Almitza elkarteko kideekin, tartean aita. Banakako proban, 100 metro karratu ahalik eta azkarren moztea zen erronka. Puska batetik bestera ezberdintasun handia zegoela azaldu du altsasuarak. "Eremu batzuetan putzu pila zeuden. Nirean ez zegoen putzurik, baina ez zegoen guztiz ongi. 80 segalari inguru ginen, partaide asko, eta erdialdean sailkatu nintzen".

Gaur aurkeztuko duten Itzuliak, bi etapa Sakanan

TXIRRINDULARITZA Gaur, ilbeltzak 26, ostirala, Itzulia Basque Country lasterketa aurkeztuko dute Irunen. Bi etapa izango ditu Sakanan, apirilaren 3an Altsasun despedituko dena eta apirilaren 4an Etxarri Aranaztik abiatuko dena

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Gaur, ostirala, Itzulia Basque Country UCI World Tour mailako lasterketa aurkeztuko dute, Irunen, Itzulia bertatik abiatuko baita apirilaren 1ean, erlojupeko batekin. Itzulia apirilaren 6an despedituko da, eta gaur emango dute, zehazki, etapa guztien berri. Aurreratu daitekeena da sei etapa horietatik bi Sakanan jokatu direla.

Etxarri eta Altsasu

Aurtengo Itzulia "oso berezia" izango dela azaldu dute antolatzailleek, Gran Premio Excelsior izenarekin jaio zela 100 urte ospatuko direlako. 1924an jaio zen, eta 1936 eta 1968 artean ez zen jokatu, Gerrate Zibilarengatik. 1969 urtean Bicicleta Eibarresa izenarekin errekuperatu zen, eta ondoren Euskal Herriko Itzulia eta Euskal Bizikleta izenak izan zituen, azkenean Itzulia Basque Country izena hartzeko. Mendeurrena ospatzeko, Euskal Herriko probintzia guztietan sartu-irteera egingo du lasterketak.

Itzuliko hirugarren etapa apirilaren 3an abiatuko da Ezpeletatik, eta Altsasu izango du helmuga. Laugarren etapa Etxarri Aranaztik abiatuko da api-



Igor Arrieta Mallorcako Challengean. UAE EMIRATES



Euskaltel-Euskadin oso pozik daude Mintegiren debutarekin. EUSKALTEL-EUSKADI

rilaren 4an, eta Araban despedituko da, Legutio aldean.

Etxarri Aranazko Maria Saez de Albeniz Bregaña alkateak azaldu duenez, "Itzulian parte hartzeko proposamena iritsi zenean interesgarria iruditu zitzaigun, Etxarri Aranatzen eta Sakanan txirrindularitzarako sekulako zaletasuna dagoelako. Munduko txirrindulari onenak Etxarri Aranatzen gertu ikustea, taldeen aurkezpena eta halako lasterketa batek mugitzen duen azpiegitura guztia herrian izatea.. egun polita izango da".

Altsasuko Udalak ere Itzuliko etapa jasoa du aurtengo aurrekontuetan. Altsasu txirrindulazalea da eta urtean hainbat lasterketa hartzen ditu, tartean Altsasu Kirol Elkarteak antolatzen duen afizionatuen Altsasu Proba, 2023an 93. edizioa izan zuena eta estatuko beteranoen artean dagoena. Altsasuko Udalak aurtengoa Itzulia sustatzeko apustua egin du, herritarrek goi mailako lasterketa baten ikuskizun handia bizi dezaten.

Arrieta eta Mintegi, primeran

Egunotan albiste izan ditugu Igor Arrieta Lizarraga (UAE Emirates) eta Iker Mintegi Claver (Euskaltel-Euskadi). Lehenak profesionalen maila gorenean (UCI World Tour) debutatu du, Valentziako Klasikoan. Bigarrenak Mallorcako Challengeko asteazkeneko Calvià Trofeoan debutatu zuen profesionaletan (UCI Pro Tour). Calvià Trofeoan bikain aritu ziren biak: Arrieta hamalagarren sailkatu zen, eta Iker Mintegi hamaseigarren. Gorka Izagirre ere Challengean dago, atzoko Ses Salines-Felanitz etapan Cofidis taldearekin lehendabiziko pedalkadak egin zituen.

Aratz Sanzol Nafarroako bloke txapelketa da, atzera ere

ESKALADA 16 urtez azpiko Nafarroako Bloke Txapelketa irabazi zuen altsasuarrak larunbatean

Aratz Sanzol Lumbreasek sendo jarraitzen du eskalada munduan. Larunbatean Nafarroako Bloke Eskalada Txapelketa jokatu zen Iruñeko Bihatx rokodromoan, eta 16 urtez azpiko gizonezkoen kategorian txapelketa izan zen

eskalatzaile altsasuarra, Martin Urribarriren eta Jon Villegasen aurretik. Gizonezkoen master mailan Jaime Sanzol, Aratzen aita, hirugarren sailkatu zen. Nafarroako Bloke Eskalada Txapelketan 120 eskalatzaile baino

gehiagok hartu zuten parte. 8:00etan hasi, eta 21:00etan bukatu zen, egun osoko jarduna.

Blokea rokodromoan prestatutako lau metro eta erdiko egituretan egiten den eskalada da, oso teknikoa. Hasierako presak markatzen dira, eta goian presa bat jartzen da, helmuga dena. Bide hori egiteko modurik egokiena aukeratu beharko dute eskalatzaileek. Aratz Sanzol 14 urtez azpiko eta 16 urtez azpiko Nafarroako Bloke Txapelketa da, eta Nafarroako selekzioa kidea.



Aratz Sanzol, eskalaten. ARTXIBOA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 26

LAKUNTZA Informazio gunea.

Balio natural handiko sega belardiak PAC/NPB 2024 laguntza berrirako informazio gunea.

09:30etik 13:00etara, Sakanako Mankomunitateko egoitza.

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza zerbitzua.

17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunea.

ALTSASU Ekitaldia.

Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrenaren ekitaldi ofiziala, instituzio ordezkariekin eta Eva Azpilikueta aktore altsasuarrarekin.

18:00etan, liburutegian.

IRURTZUN Txapelketa.

Felix Urra Mariñelarena – XV. Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa.

18:30ean, Larrazpin.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota elkartearen Nafar Kirol Jokoen partidak. Haurrak bigarren liga: San Martin – Sasiain / Salinas – Gastearena.

18:30ean, Euskalerriari pilotalekuan.

ARBIZU Mustutze ekitaldia.

Olatzea hotelaren sagardotegiaren mustutzea: luntxa, musika eta txotxa. Parte hartzeko: 650 023 698.

19:00etan, Olatzea hotelean.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Etzera Azken ostirala Sareren elkarretaratzea.

19:30ean, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Kontzentrazioa.

Etzera Azken ostirala Sareren elkarretaratzea.

20:00etan, San Martin kalea, 7.

ARBIZU Kontzentrazioa.

Etzera Azken ostirala Sareren elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ

Kontzentrazioa.

Etzera Azken ostirala Sareren elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Kontzertuak.

Arpaviejas eta Muga Zero taldeen kontzertuak, Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta. 6 euro.

22:00etan, gaztetxean.

OLAZTI Kontzertuak.

Mandroll eta Kota Zero taldeen eta herriko Dj baten kontzertuak, Olaztiko Gazte Asanbladak antolatuta.

23:00etan, Maisuenea gaztetxean.

LARUNBATA 27

ALTSASU Jardunaldia.

La Encina Extremadurako kultur elkarretaren txerri hilketak.

09:00 Extremadurako ogi mamiak jatea.

11:00 Txerria zatikatzea.

12:00 Txerrikiak egitea.

13:00 Txerriaren zatien jatea.

14:30 Txerri hilketaren tradiziozko bazkaria.

ALTSASU Txirindularitza irteera.

Barranka Txirindularitza Talde mistoaren irteera: Beunde eta Txurrukopunta, 36 kilometroko ibilbidea.

09:00etan, Zumalakarregi plazatik.

ARBIZU Jardunaldia.

Oscar Terol eta Omark Carabia: *Mundos para lelos. Renovado (ahora te cuento la verdad)*, Arbizuko ekokanpineko Amari Yoga gunean.

10:00-13:00 Yoga magikoko tailerra.

13:30 Katerin beganoa.

20:00 *Mundos para lelos.*

Renovado (ahora te cuento la verdad) ikuskizun berriaren aurkezpena.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota elkartearen Nafar Kirol Jokoen partidak. Kimuak: Aldasoro – Baqueriza / Moreno – Mendiburu; Haurrak lehenengo liga: Campos – Garmendia / Glaria – Morales; Haurrak bigarren lana: Jaka – Marroyo / Astiz – Legarra; Gazteak: Murugarren – Zubiria / Jimenez – Urbe.

10:00etan, Euskalerriri frontoian.

ALTSASU Topaketa.

82. *Sketchcrawla* Euskal Herria taldearen topaketa.

10:00 Foru plazako kioskoa eta Espejo taberna; lehenengo argazkia.

10:30 Foru plazako inguruak: Jasokundearen eliza eta Altsasuko sustraiak eskultura.

12:00 Elkarretaratzea Arkangoa tabernan.

12:30 Iortia kultur gunea: Bandaren entsegua.

14:30 Bazkaria, Kaixo jabetxean.

16:30 Udaletxearen inguruak.

18:00 Agurra eta azken argazkia.

ITURMENDI Urteurrena.

Ximona gaztetxearen 13. urteurrena.

11:00 Kobxe kedada Ordiziko Palestinaren aldeko manifara joateko, plazan.

19:00 Pintxo potea, gaztetxean.

19:30 Atari berriaren mustutzea eta muralaren bozketa.

21:30 Pizza afaria, gaztetxean.

00:00 Herriko artista famatuekin musikaldia: karaokea eta DJ-a.

ALTSASU Puzgarriak.

Haur eta gazteendako parke handia, 2024ko Altsasuko kintoek antolatuta.

5 euro; eskumuturrekoa moztean krispeta paketa bat emanen zaie.

11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era, Zelandi frontoian.

ZIORDIA Amarauna festa.

14:00 Bazkaria.

17:00 Txokolate jana eta aurpegi margoketa.

18:00 Twomuch Circus.

20:00 Bokatada.

21:00 DJ Galaxia, DJ KA eta Kimuk DJ: Amapiano, Dancehall, Afrobeat, DUG, reggae, Afro house, hip hop, soca, kuduro eta electro flamenco. Dantza eta dinamizazioa: Anastasia (dance hall, afrobeat...).

IRURTZUN Txapelketa.

Felix Urria Mariñelarena – XV. Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa.

16:30etan, Moncloa tabernan.

IRURTZUN Ihes gela.

Gozamenez Scape Room, Tramankuluren eskutik, Irurtzun Eskualdeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak eta Irurtzungo Udalak antolatuta. Izena emateko: gizarte zerbitzuetan; 605466805 edo prebentzioa@ssbirurtzun.eus-en. Taldeka.

Arratsaldez, kultur etxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Migrazioa, bidaia ahaztezina famiarteko euskarazko filmaren emanaldia

Igandea 28: 17:00

Astelehena 29: 19:00

Fallen Leaves gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Igandea 28: 19:30

Cualquiera menos tú gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 1: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Acusado zineforum filmaren emanaldia

Igandea 28: 19:00

Perfect Days zineforum filmaren emanaldia

Osteguna 1: 19:00

ALTSASU Antzerkia.

Las bingueras de Eurípides Las niñas de Cadiz konpainiaren antzezlanean emanaldia. Oso sarrera gutxi gelditzen dira.

19:30ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Kontzertuak.

Xuar eta Brainwashed taldeen kontzertua.

23:00etan, gaztetxean.

IGANDEA 28

ETXARRI ARANATZ Areto futbolak.

Sakanako Benjaminen Areto Futbol - Futbol 8 Topaketak: Laugarren jardunaldia.

Etxarri Aranazko Euskalerriri frontoian.

10:00 Arbizu KT - Uharte Neskak

11:00 Aralar Mendi - Etxarri Aranatz KE

12:00 Altsasu KE - Sutegi

13:00 SD Altsasu - Altsasu

ARBIZU Padel topaketa.

Emakumeak kirolean lagun topaketak: padel, Sakanako Mankomunitateko Kirol, Berdintasun, Euskara eta Kulturartekotasun Zerbitzuek antolatuta.

10:30etik 13:00etara, Sakana Padelen (Utzubar, 3).

IRURTZUN Antzerkia.

Sagastitarrak: Sagastitarrenean alabarekin ez da giro, Ane ekintzaile feministak bere lehen abizena aldatzea erabaki du, eta bere amaren alde egin. Anton Sagasti aitarendako ulertezina da eskualdean tradizioa handikoa den



ARTXIBOA

ARBIZU Arbizuko ikastolako argazki erakusketa. Arbizuko ikastolak herriari Arbizuko ikastolaren 50. urteurrenaren harira Andra Mari ikastolak antolatuta. Ostiralean 18:00etatik 20:00etara; larunbatean, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; igandean, 18:00etatik 20:00etara.



ARTXIBOA



ALTSASU Zientzialari ilustratuak ADItch-en zientzialarien ilustrazioz osatutako erakusketa. Urtarrilaren 28ra. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna dagoenean, eta igandetan 18:00etatik 20:00etara. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.

ALTSASU Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrena. *Ospatu gurekin!* dokumentu, objektu eta liburuen erakusketa. Otsailaren 29ra. Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara. Liburutegian.



ARTXIBOA

abizena aldatu nahi izatea. Euskaraz. 6 euro. 19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 29

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEAZKENA 31

ALTSASU Tailerra.

Haurrendako tailerra Manolita Thunders artistaren eskutik, Altsasuko herri liburutegiaren 90. urteurrenaren barruan. Elebiduna. 17:30etik 19:30era, Iortia kultur guneko erabilera nitzeko aretoan.

OSTIRALA 2

ALTSASU Hitzaldia.

Karmele Jaio idazlearen hitzaldia, Altsasuko herri liburutegiaren 90. urteurrenaren barruan. Euskaraz. 18:00etan, Iortia kultur gunearen areto txikian.

OLATZAGUTIA Aurkezpena.

Indarkeria matxistarekin amaizteko antolatutako proposamen politikoaren aurkezpena. 18:00etan, kultur etxean.

OLATZAGUTIA Irakurle taldea.

Una educación Tara Westover idazlearen liburua. 19:00etan, liburutegian.

ESKELA



Ines Betelu Azpiroz

Gizonezkoen negozio munduan emakume aitzindaria, Sakana eta inguruneak dantzan jarri zenituen Lagun Artea, Ilargi eta Rodas dantzalekuekin. Zenbat oroitzen. Eta zenbat gustatzen zitzaizun dantzaztea. Irakurle eta bidaiari amorratua, mundua zeharkatu zenuen. Toki ederrena, ordea, etxea. Beti. Eta, edonon, ezagunak. Jende asko gerturatzeko zen zu agurtzera. "Genio y figura", bukaeraraino.

Guretako hori guztia eta askoz ere gehiago zinen. Ama, amiñe, bikote, arreba, koinata, izeba, lehengusu... Elanekoa etxeko matriarka, bihotza eta arima, guztiak zure altzoan biltzen zenituen.

Lagun Arteako izkinak faltan botako zaitu, baina zoazen lekura alaitasuna eramango duzu. Eskerrik asko, horrenbestegatik...

Maite zaitugu.

Elanekuek
LAKUNTZA



ESKERTZA



María Anso Arbizu

Bakaikun hil zen, 2024ko urtarrilaren 19an, 95 urte zituela

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertzen ditu

Etxekoak

ESKELA



Iñaki Larrion Azurmendi



Ahazten ez dena ez da inoiz hiltzen

79ko kintoak

Altsasu

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JAIOTZAK

- **Laiene Sandoval Gonzalez**, ilbeltzaren 6an Irurtzunen
- **Haizea Lizarraga Mayo**, ilbeltzaren 12an Dorraon

EZKONTZAK

- **Eneko Razkin Orobengoa eta Leticia Torres Pastor**, ilbeltzaren 16an Irurtzunen

HERIOTZAK

- **Ines Betelu Azpiroz**, ilbeltzaren 21ean Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ALOKAGAI

Logela alokagai Altsasu: 350 euro gastuak barne. Informazio gehiago 606 337 341 telefonoz.

IRAKASKUNTZA

KLASEAK EMAN

LH ikasleendako klase partikularrak: Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

LANA/NEGOZIOAK

ERRENTAN EMAN

Arbizuko Ihoeteetako bazkariko taberna kudeatzeko deialdia: Joan den urtean bezala ihoeteetako larunbatean, otsailak 10, bazkaria eta dantzal-

dia egonen dira frontoian. Bertan jarriko den taberna kudeatu nahi duenak udaletxean eskabidea aurkeztu behar du otsailaren 1a baino lehen.

LAN ESKAINTZA

Sakanako Garapen Agentzian Europako proiektuen arduradun lanpostua betetzeko deialdia: Lanaldi osoa (32.190,36 euroko soldata gordinarekin) eta kontratu mugagabea. Unibertsitate ikasketak, euskara C1 maila titulu bidez aurkeztea edo frogatzea (euskara proba gaituz), ingelesa ahoz eta idatziz B2 maila, gidabaimena eta ibilgailu propioa eta antzeko eginkizunetan bi urteko lan esperientzia izatea eskatzen da. Hautatutako pertsonaren eginkizuna Sakanako Plan Estrategikoan aurre-

kusitako jarduerak garrantzea izango da (maila askotariko lkerketa eta Garapen programa aztertu ta zabaldu, proiektu estrategikoak kudeatu, SGAKo lantalde teknikoaren koordinazioa, enpresen arteko elkarlana sustatu etab). Informazio gehiago nahi duenak SGA-rekin harremanetan jarri daitezke 647 864 239 telefonora deituz edo info@sakanagaratzen.com helbide elektronikora idatziz. Eskabideak Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako egoitzan aurkeztuz, haren egoitza elektronikoa (labur.eus/fEufj) edo Sakanako Mankomunitatera gutuna bidalitz.

IKASTAROAK

Olaztin jaiotzak egiten ikasteko hastapen ikas-

taroa: 16 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroa Sakanako Jaiotzazaleen Elkarteak antolatuta. Izen emateko deitu 696 920 512 edo 606 227 612 telefonora otsailaren 16a baino lehen.

Oinarritzko gaitasun digitalak doako ikastaroa Altsasun (lan egoera kontutan hartu gabe): Gaitasun digitalak prestatzeko aukerarik ez duten pertsonen zuzendua, urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra, bi ordutegitan 15:30tik 17:30era edo 17:45etik 19:45era (plazak osatzen ez badira, ordutegi bakarra izango da) Altsasuko Enplegu Agentzian. Informazioa eta izen emateak 948 012 012 telefonoz edo aventuradigital@navarra.es e-postan.

Langabetuendako IKT ikastaroa Altsasun: enplegagarritasuna hobetzeko eta eten digitala murrizteko egunean egoteko gai ezberdinak lantzeko dituzte. Ikastaroa urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra izango da, 09:30etik 13:30era Altsasuko Enplegu Agentzian. Izen ematea 948 012 012 telefonoz.

OHARRAK

Olaztiko ihoeten herri bazkariko txartelak salgai: Bazkaria (baba-rrunak sakramentuekin, torrijak, kafea eta kopa) otsailaren 10ean izanen da. Helduek 15 euro eta 12 urtera arteko haurrek 12 euro. Otsailaren 6tik aurrera erosten diren txartelak 20 euro balioko dituzte.

Asteburuan Altsasuko plazan txano arrosa marradun bat topatuta: Jaso nahi duenak 634 437 155 telefonora dei dezala.

Aita Mariren 2024ko lehen erreskate misioa finantzatzeko crowdfunding kanpaina martxan: Itsas Salbamendu Humanitarioak crowdfunding kanpaina hasi duela jakinarazi du Goteo plataformaren bitartez eta Fiere Banca Eticaren lankidetzan. Informazio gehiago www.smh.eus web orrian. Parte hartzeko sartu ondoko link-ean: <https://www.goteo.org/project/barco-de-salvamento-aita-mari>.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Fan Matxine taldea 'Camina' bideokliparen une batean. UTZITAKOIA

Etxarritik sakandarrendako

Duela urte bat inguru Fan Matxine musika proiektua jarri zuten martxan Daniel Sanz 'Pintxo'-k eta Izai Mauleon 'Dr Gass'-ek, Etxarri Aranatzan. Orain boskotea osatu dute, eta bi astez behin abesti eta bideoklip berriak ateratzen joanen dira

Eneida C. M. eta E. R. B. ETXARRI A. Fan hitza *fantastik*-etik dator; *fan* bat zale bat da ere, fanatikoa, eta Etxarri Aranazko euskarari joan esan nahi du. Fan hitzaren esanahi horiei matxine hitza musika egiteko makinagatik gehitu eta Fan Matxine taldea sortu dute Etxarri Aranatzan. "*Fan dakigu fan matxine* kanta aterako dugu hemendik gutxira", esan du Daniel Sanz Pintxo Fan Matxine taldeko kideak eta sortzailetako batek. Duela urte bat inguru Izai Mauleon Dr Gass musikari etxarriarrarekin proiektuarekin hasi ziren, eta ondoren Armo etorri zen. "Berak sintetizadorea, sanplerrak, loopak, ekoizteko eta efektu digitalak egiteko makina bat dauka". Armo gabe Fan izanen zen taldea. "Armo Matxine, Fan Matxine". Proiektura Endika Jaka bateria jole etxarriarra eta Lizarralde-

ko Oliver Jaurrieta gitarra jolea batu dira, boskotea osatuz. Duela pare bat aste *Camina* abestia publikatu zuten, eta bi astez behin kanta eta bideoklip berria kaleratuko dutela aurreratu du Pintxok.

"Filosofia da lagun talde bat etxetik, etxekoa eta etxekoentzat". Fan Matxine Sakanako proiektu bat dela azaldu du Pintxok; musikaria berez ez da Sakanakoa, "baina Etxarrin biltzen gara, egoitza Etxarrin dugu, hiru taldekide etxarriarrak dira, bideoetan etxarriarrak eta sakandarrek agertzen dira...". Gainera, izatez

"ETXETIK, ETXEKOA ETA ETXEKOENDAKO PROIEKTU BAT DA; SAKANAN ARITZEA NAHI DUGU"

etxarriarra ez izan arren, Egurre taldeko abeslaria izan zen, eta Sakana aldean horregatik ezaguna egin zela azaldu du: "Etxarriekin nolabaiteko lotura dut, nire etxean baino gehiago maite naute batzuek".

Egurre taldeko abeslaria ez ezik, La Bella Beasain deitutako beste proiektu bat jarri zuen martxan. Fan Matxine proiektuko lau kideek ere esperientzia dute musikaren munduan. Mauleonek Dr Gass deitutako hip hop proiektu bat dauka eta Armo musika sortzen eta disko jartzaile aritu da. Ondoren, proiektuan Oliver gitarra jolea sartu zen, Flutter taldeko kidea. "Taldea sekulako ospea izan zuen, eta oraindik indarrean dago", azaldu du Pintxok. Gitarra jolea izan arte berak jotzen zuen gitarra, "baina tipo bat gitarra batekin zen, ni ez naiz gitarra

jolea. Ematen du ezetz, baina sekulako aldea dago gauza bat eta bestearen aldean". Taldea osatzen azkena Endika Jaka bateria jolea izan da, besteak beste, Brutal Room eta Alkaloidetako kidea. Pintxoren esanetan, "Sakana osoko bateria jolerik onenetarikoak, eta orain proiektura batu egin da". Aurretik bateria "modu digitalean" sartzen zutela azaldu du musikariak.

Ukituak

"Estilo pixka bat eklektikoa" egiten du Fan Matxine taldeak: "Punk, punk rock eta ska edo horrelako estiloetatik edaten duen proiektua da. Pentsa Egurre taldetik eta abarretik gatzela". Proiektua rock, hip hop eta beastie hopetik ere gertu dagoela azaldu du Pintxok. Betiko "istorioa" baina makinaren ukituarekin; "hortxe gaude".

Abesti gehienak euskaraz izango dira, nahiz eta gaztelaniazko eta ingelesezko baten bat egongo direla aurreratu duen Pintxok. "Euskaraz eta esaldiren bat ingelesez izan daiteke ere, baina orokorrean euskaraz izango dira". Horrela sortu zaiela esan du musikariak.

FAN MATXINEK ESTILO "EKLEKTIKOA" DU: "BETIKO ISTORIOA BAINA MAKINAREN UKITUEKIN"

Camina lehenengo kanta eta bideoklipa duela pare bat aste kaleratu zuen Fan Matxinek, Youtubean, eta bi astez behin bideoklipak ekoizten eta elkarbanatzen ariko direla azaldu du taldeko kideak. Sare sozialetan ere lanen berri emango dute. "Baina gure filosofia da lagun talde bat garelako, etxetik, etxekoa eta etxekoentzat. Ez da ea Madriletik deitzen gaituzten edo Durangotik edo ez dakit nondik. Gure ilusioa eta helburua da ekoizpenak argitaratu ematea eta hemen inguruan jotzea. Ez da Hertzainak berriak bilakatzeko ote garen edo arrakastaren formula bilatzea". Proiektua etxetik, etxekoa eta etxekoentzat dela hainbatetan errepikatu du Pintxok, "hori baita gure asmoa, ongi pasatu, gure artean gustura, kristoren farrak botatzea bideoklipak grabatzen eta gure tontakerietan ibiltzea". Musika ateratzean "gustura" ari direla ikusteak, azken finean.

Proiektua martxan jarri zutenetik Mauleon eta Pintxo aritu dira kantak "osatzeko, egiten, nahasten, ekoizten eta abar, baina banda gabe"; prozesu "tekniko-teorikoa" izan dela azaldu du Pintxok. "Entsegu gutxi gabe". Orain "bat-batean" banda osatu dute, eta haien "ametsa" egun batean Etxarri Aranazko gazte-txea "hankaz gora jartzea" da: "Esatea, begira, hau da entzun duzuen guztia". Asmo horri buruz askotan hitz egin dutela aitortu du musikariak. "Sakanan rude pixka bat mugitzea".

'Toure detektibea' telesaila otsailaren 1ean mustuko dute

Jon Arretxeren pertsonaian oinarritutako ikus-entzunezkoa PRIMERAN plataforman jarriko dute

ARBIZU

Liburuetatik pantailetara salto egingen du Jon Arretxe Arbizun bizi den idazlearen Toure pertsonaiak; urtarrilaren 31n, asteazkena, 19:00etan, Bilboko Sala BBK aretoan *Toure Detektibea* telesailaren aurrestreinaldia egingen dute, eta otsailaren 1ean PRIMERAN plataforman estreinatuko da; lehendabizi euskaraz.

Telesailak sei kapitulu izanen ditu, eta Bilbon bizi den etorkin ginearraren istorioa kontatuko du: paperak lortu bitartean bere asmoa oharkabean igarotzea

bada ere, sen berezia dauka eta detektibe lanetan hasiko da. Arretxeren liburuetan oinarrituta sortu dute ikus-entzunezkoa.

Protagonista Malcolm Treviño-Sitte aktorea da, eta harekin, besteak beste, Unax Ugalde, Loreto Mauleon, Itziar Ituño, Jon Olivares eta Ane Gabarain aktoreak agertzen dira. Esteban Crespo eta Violeta Salama zinemagileek zuzendu dute telesaila.

Telesaila gaztelaniaz grabatu dute, eta euskarara bikoiztu. PRIMERANen ondoren RTVEN eta EITBn emitituko da.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

Gaitz erdi



erdi oso bete huts
erditzea bada erdi izatea
erdi hitzera da hitz egitea
osoa dena bota
barru erdia hustea
hitz betea bidean abaztea
norbait maitatu eta galtzea

aldi bakoitzean erditzea da

Etxepare Sariketaren edizio berria martxan da

Haurrendako ipuin ilustratuak sortzeko lehiaketara lanak aurkezteko epea maiatzaren 10ean, ostirala, da. Aurreko urteko edizioaren saria hutsik gelditu zen. Nafarroako 22 toki entitatetako euskara zerbitzuek antolatzen dute saria

SAKANANA

Haurrendako album ilustratuak sortzea da Etxepare Sariaren xede nagusia. Album ilustratutaz hartzen dira testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak eta 2023ko sariketa martxan jarri dute dagoeneko; parte hartzaileek maiatzaren 10era arte dute lanak aurkezteko epea. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna ekainaren 28a izango da. Nafarroako 22 toki entitatetako euskara zerbitzuek antolatzen dute, tartean Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak. Saritutako lana Nafarroako Pamiela argitaletxeak argitaratuko du udazkenean, eta lehiaketaren saria 5.000 eurokoa da, egile eskubideen aurrerapen moduan. 2023ko edizioa hutsik gelditu zen, eta 2022an *Kiratsa* album ilustratuak irabazi zuen.

Bakarka, hau da testua eta ilustrazioa sortzaile batek eginga, edo binaka, idazle eta ilustratzailea osatutako taldean, parte har dezakete sortzaileek Etxepare Sarian. Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabek izanen dira. Lehiaketan ez dira onartuko beste inondik moldatutako lanik, ezta aurretik saririk jaso duenik ere. Sariketan azken lau deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dituzte ere, nahiz eta beste baldintzak bete.

Formatuari dagokionez, librea da, baina gehienez ere 20 zentimetroko zabalera eta 21 zentimetroko altuera baino txikiagoak izanen dira lanak, eta gutxienez hamabost orrialde bikoitz izanen dituzte. Testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko, zuriuneak barne, eta gehienez 32 orrialdeko luzera izanen dute.

Lehiaketan parte hartzen dutenek albumaren maketa fisikoa zein digitala aurkeztu behar dute etxeparesaria.eus webgunearen bidez. Fitxategiek hogeiki mega



Etxepare Sariko irabazleen azalen erakusketa. ARTXIBOA

MAIATZAREN 10ERA ARTE AURKEZ DAITEZKE LANAK ALBUM ILUSTRATUAK SORTZEKO LEHIAKETARA

baino gehiago ez izatea aholkatzen dute. Lanak izengoitiaz izenpeturik egonen dira, eta egileek nahi badute, irudi originalak bidal ditzakete, posta arrunt bidez; horrela bada, lanarekin batera gutunazal itxi bat aurkeztu beharko dute, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizena izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak agertu beharko dira. Etxepare Saria, Leitzako udaletxea, Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880, Leitza helbidera bidali beharko dute.

Epaimahaia haur literaturan eta ilustrazioan adituak diren pertsonak osatuko dute, eta udal eta mankomunitate antolatzaileek izendatuko dute. Antolatzaileetako teknikari batek idazkari lanak egingen ditu. Pamielak izendatutako pertsonak egon daitezke epaimahaiak egiten

dituen bilkuretan, eta hitza izanen dute, baina ez botorik.

Epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako lanek behar adinako mailarik ez balute, ez da saririk emanen, eta haren erabakia apelaezina izanen da. 2023ko Etxepare Saria, hain zuzen, eman gabe gelditu zen, epaimahaiaren iritziz, "proposamen estetiko batzuk benetan goraipatzekoak ziren eta zenbait argumentu literarioki ongi garatuak izan dira, baina iruditu zaigu ez dela gertatu bi osagai horien arteko oreka, ez dela gauzatu aurreko edizioetan nabarmendutako bikaintasuna, horixe baita album baten espiritua, esentzia eta finezia".

Album ilustratuak sortzen trebatzeko Galtzagorri elkarteak Biko-Teka tailerra antolatzen du, Iruñeko Udalarekin batera. Harkaitz Cano idazleak eta Aitziber Alonso ilustratzaileak gidatzen dute ikastaroa. Urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra egingo dute, Iruñeko Kondestable Jauregian. Bertan ilustratzaile bat eta idazle bat elkartzen dituzte eta album ilustratu bat sortzeko laguntza eta aholkularitza jasotzen dituzte. Etxepare Sariko hainbat irabazle tailerretik ateratakoak dira.



Cristina Fernandez ilustratzailea bere hainbat lanekin. UTZITAKOIA

"Bi zaletasun uztartzen ditut: marraztea eta irakurtzea"

CRISTINA FERNANDEZ ILUSTRATZAILEA

Liburu askotako azalak egin ditu Arbizun bizi den artistak. Sortzaileak Adimen Artifizialarekin "adi" egon behar direla dio. Webgune batean bere lan guztiak bildu ditu

Eneida C. M. eta Erkuden R. B. ARBIZU Sanjuanetan hogeitau urte beteko dira Cristina Fernandez ilustratzailea Arbizun bizi dela. Arte Ederrak Diseinu Grafikoaren espezialitatean eta Artearen Historia ikasi zuen, eta lehenengo ikasketak amaitu aurretik diseinatzaile lanetan aritu zen enpresa bateko marketin departamentuan. Zorte ona eta txarra izan zela aipatu du; lana eta soldata izatea oso ongi zegoen, baina "hain goiz aurkitu nuen, formakuntza handiagoa eta sakonagoa egin ahal

izan nuela sentitzen dut". Horretaz "aspertu" zen sorkuntzarako toki gutxi zuelako, eta ilustrazioaren munduan barneratu zen. Bestek beste, Erein argitaletzeko Uzta Gorria bildumaren liburuen azalak sortzen ditu.

"ILUSTRATZAILEA KOMUNIKATZAILEA IZAN BEHAR DA; ILUSTRAZIOAK EZ DIRA APAINGARRI HUTSAK"

Zein izan da ilustrazioaren zentratzerako zure ibilbidea?

Ilustrazio teknikoak egiten hasi nintzen eta pentsatu nuen niri gustatzen zitzaidana diseinu editoriala eta literaturan lan egitea zela. Ipuinentzako ilustrazioak egiten eta abar. Argitaletxeetan bidea bilatu nuen, eta lan txiki bat argitaratzeko aukera izan nuen. Jon Arretxeren *Tubabu* liburuaren barruan agertzen den mapa bat egin nion fabore bezala, ez zen enkargu bat izan, eta ez neukan kobratze-

ko asmorik. Argitaratzean ikusi zuten ni han nengoela, existitzen nintzela eta zer edo zer gehiago agindu zidaten. Lehenengo azalak Elkar-en argitaratzen hasi nintzen; gero beste batzuk etorri dira. Azalak ez ezik album ilustratuak, testu liburuentzako ilustrazioak eta abar ere egin ditut. Gaur egun lan handiena Erein-ekin egiten ari naizena da. Uzta Gorria izeneko nobela beltza bilduma dauka eta horren diseinuak nik egiten ditut, eta liburuak ere irakurri ditut.

Liburu horiek gustuko dituzu?

Irakurtzea gustuko dut; zaletasun handia daukat. Batzuetan irakurtzen ari naizena ez zait hainbeste gustatzen, baina profesional ona izan nahi dudanez, irakurtzen ditut. Bateratzen ditut nire bi zaletasun handiak: marraztea eta irakurtzea. Zorte handia da.

Nola da liburu azal baten sortzeko prozesua?

Bi atal nagusi ikusten ditut. Hasteko sorkuntza dago, ideia sortzea eta asmatzea nola gauzatu marrazki batean. Hori da gehien kostatzen dena; batzuetan pisu handiagoa dauka pentsatzeko lan horrek eskuko lanak baino. Lehenengo gauza irakurtzea da; arkatza eta libreta batekin irakurtzen dut hitz gakoak edo ideia nagusiak apuntatzeko. Beste aldetik, erabaki behar dut zer teknika erabiliko dudun, marrazketa edo argazkia. Hibridoak izaten dira; ordenagailuan asko moldatzen dut. Baina saiatzen naiz ahalik eta gutxien nabaritzea ordenagailuan egiten dudun moldaketa. Tresna bezala erabiltzen dut, eta nire helburua da eskuz lortu ez ditudan gauzak ordenagailuaren bidez osatzea edo zuzentzea; modu naturalean. Ez zait gustatzen ordenagailuak ematen duen estetika hotz hori. Eskuaren aztarna gustatzen zait.

Zer da ilustratzailea izatea?

Definizio asko egin daitezke. Gakoa komunikazioa da. Ilustratzailea komunikatzailea izan behar da. Ilustrazioak ez dira apaingarri hutsak. Gehiagoman behar dute; batzuetan testua osatzen dute, interpretatzen dute,

"GURE LANA EZ DAGO OSO BALORATUTA; KULTURAN OROKORREAN GERTATZEN DA"

beste ikuspegi bat eman... Komunikatu behar dute. Hori da inportanteena. Oso behatzaile onak izan behar gara inguruan dugun mundua irudien bidez interpretatzeko. Batzuetan kontzeptu abstraktuak, sentimenduak edo materialak ez diren egoerak dira, eta horiek materializatu behar ditugu.

Gora eta behera dabilta Adimen Artifiziala eta sortzaileak. Zer iritzi duzu?

Adimen Artifiziala aspalditik erabiltzen dugu, telefonoetan eta itzultzaileetan dago. Teknologia ongi dago eta bizitza errazten du, eta oso baliagarria da lan monotonoak eta mekanikoak egiteko. Arazoa sortzen da saiatzen denean artea edo kultura sortzen, zerbait berria balitz bezala. AAK trebakuntza bat behar du, eta trebatzeko Interneten dagoen datu asko zurrupatzen ditu, hortik edaten du, hori da bere informazio iturria eta hor dago sortzaile guztien lana. Zerbait eskatzen diozunean dena biltzen du eta horrekin koktel bat egiten du. Arinago egiten da dena. Arazoa da egiletza eskubide batzuk apurtzen direla. Niri modu pertsonalean ez dit beldurrik ematen AA batek nire marrazki bat hartzea, nahiago dut ezetz; hori ez da kezka nagusia. Kezka modu kolektiboan dago. Guk egiten dugun lana ez dago berez oso baloratuta, oso polita esanez bai, baina ekonomikoki ez. Bokaziozkoa da. Kulturaren orokorrean gertatzen da. Badirudi kultura gustatzen zaigulako egiten dugula, eta esfortzurik eta sakrifizioz ez duela eskatzen. Kontrakoa da. Lehentasuna ez da dirua, baina bizitzeko dirua behar dugu. Jarduera horrekin profesionalen esfortzua, trebakuntza eta lana lapurtzen ari zara.

Webgunea ere sortu duzu. Zer duzu hor?

Sortzea baino online denda sortu dut orain, eta horrekin batera lehen neukana berritzi dut. Hor azaltzen da nor naizen, nire ibilbidea, portfolioa eta blog bat egiteko asmoa dut bertan nola egiten dudun lan azaltzeko. Webgunea ikusgai egoteko behar nuen; irudiak babestuago daude. Pandemiaren ondotik pisu handia hartu zuen komertzio elektronikoak eta dendatxo bat sortu dut. Nire lanak eskura daude, eta beste bizitza bat ematen diet horrela. Bestela, bizitza laburra dute, hor gelditzen dira

"Jendearekiko harremana pizgarria izan da lanean"

1983ko urrian hasi zen Andoni Beramendi altsasuarra Sakana Lanbide Heziketako institutoan lanean, eta 40 urtez "eta hilabete batzuk" bertako atezaina izan da. Sakanako gazte belaunaldi asko ezagutu ditu

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Nola hasi zinen?

Langabezian nengoen; garai horretan ez zegoen ia inorendako lanik. Are gutxiago sindikalista eta borrokatzailea bazinen. FASAn oso gaztetik lan egiten nuen, eta fabrika itxi zuten. Bi urte neramatzan langabezian eta Altsasuko festen bezperan langabezia sinatzera joan nintzen eta INEMaren bulegoan institutuatu atezain bila ari zirela jartzen zuen, eta aurkeztea erabaki nuen. CVa eskatzen zuten, eta ez genekien zer zen ere. Lan esperientzia paper batean jarri, eta institutura entregatzera joan nintzen. Ondoren parrandara joan nintzen. Jende asko aurkeztu zen, eta bi pertsona hartu gintuzten: nire lagun Jose Mari, duela urte batzuk jubilatua zena, eta ni. Oso gaztea nintzen, 24 urte nituen, eta gaur egun arte. 12an, nire urtebetetzeari, azken lan eguna izan nuen.

2 Zer lan egin behar zenituen?

Denetarik egin dugu. Garbitu ez ezik, denetarik: pertsianak konpondu; igeltseroak ere izan gara, elektrizistak... Oso gutxi irabazten genuen eta inork ez zekien nondik ateratzen zen diru hori. Francisco Francoren FP patronatuaren menpe geunden; 1980ko hamarkadan! Lanbide Heziketa garai horretan oso gaizki zegoen, abandonatuta. Irakasleei esker ateratzen ziren ikasleak aurrera. Orain aldatu da, zorionez.

3 Hemen bizi behar zinen, ezta?

Bai. Sartu ginenean esan ziguten baldintza bat guretako bat zentroaren ondoan dagoen etxean sartzea zela. Jose Marik bazeukan etxea eta ezin zuen, eta ni gazteago nintzenez sartu nintzen. Pisua nahiko gaizki zegoen, ez zen nik utzitakoa.



Andoni Beramendi 40 urtez LH institutuko gela batean.

1984an edo 1985ean obrak egin zituzten, eraikin berria egin zuten ere, eta pisua pixka bat hobetu zuten.

4 Zure lana asko aldatu da?

Ez da asko aldatu. Mantentmentuko lanak; gerora igeltsero lanik ez genuen egin behar izan. Zentroaren beharretara geunden. Hauteskundeak zeudenean egon behar nintzen ere. Patronatu arraro hori desagertu zenean kalera bota nahi gintuzten, administrazioa salatu genuen eta epaiketa irabazi genuen. Nafarroako Gobernuak kompetentziak hartu zituenek dekretu bidez funtzionarioak egin ginen. Niri berdin zitzaidan, ez nituen onura gehiago.

5 Zure etxea bezala.

Bai, hori da. Alarmak jotzen zuela, ea zer gertatu den...

6 Etapak egon direla esan dezakezu?

Ez. Aldaketa nabarmena 14 urte izatetik 16 urte izatera etortzen hasi zirenean izan zen. 14 urterekin eskolatik formal-formal egotetik batailara bezala etortzen ziren. *Sakanikola* guztiak etortzen ziren; oso dibertigarria zen. Laneko hoberena zen. Gazteek ez dute itxurakeriarik; gaiztoak zenbatzeko esku baten hatzak soberan ditut. Orokorrean guztietaz oroitzen naiz, izenak ez, baina aurpegiak bai. Zortea daukat kaletik agurtzen naute-lako. Tratu oso ona izan dut, eta hori haiekin gogorra izan naitela. Irakasleekin ere oso ongi egon naiz.

7 Gazteen izaten modua aldatu dela nabaritu duzu?

Ez! Gazteek gazteak izaten jarraitzen dute. Gazteak dira. Zorionez zonalde honetako gazteak ez daude gaiztotuta. Hirietan konplikatua delako uste dut. Sakandarrak basatiagoak izango dira, baina

jatorrak dira, zintzoak. Beti laguntzeko prest. Laguntza eskatzen nuenean esku pila bat nituen prest.

8 Beraz, esperientzia ona izan duzu.

Bai. Lana agian ez zen oso duina: fotokopiak egitea eta noizean behin zerbait konpontzea. Lan aspergarria izan da, gehienbat. Baina jendearekin duzun harremana pizgarria izan da.

9 Baina zure lana garrantzitsua izan da.

Bai, gauzak ongi egitea gustatzen zait. Lanak balorea badu, eta izan dira lan handiko uneak, ikasturte hasieran gehienbat. Baina errutina handiko lana izan da.

10 Nola daramazu jubilazioa?

Primeran. Ez dut zentroa faltan botatzen. Denbora gutxi daramat, baina ziur ez dudala faltan botako. Nik bizitzeko lan egin dut, ez dut bizi lan egiteko. Mastinak ditut, baita oilo batzuk ere, eta orain denbora gehiago pasa ahalko naiz beraiekin, eta ez dut beste pertsonen laguntzarik behar izango.

11 Egun hauetan ikastetxearen SOS deia bat jaso duzu?

Ez. Gaur (asteazkenean) etorri naiz lehenengoz institutura etxea husten ari naizelako oraindik, eta elkarrizketa egiteko. Ordezkoa azkar etorri da, egia esan. Ez zuten espero. Baina hor Urbitarte zuzendaria deika ibili da jubilatzen naizela abisatzen.

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

Behar duzun guztia

BAZKIDEEK
**DES
KON
TU
BEREZIAK**

fo

619 821 436 | Foru plaza, 23-1, Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus